



San Pedro jaietan, denok kalera!!!



Oso ondo pasa
San Pedro jaietan!



ASEGURUAK
Ges

Kalitatezko zerbitzua da
gure lanaren arrazoia

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...

Okela



HARATEGIA

Ondo igaro San Pedro jaietan !




Hipodromo etorbidea 8 • Tel.: 943 361885

Lasarte-Oria



Kale Nagusia 41 • Tel.: 943 363912

Lasarte-Oria



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

IEFPS USURBIL GLHBI



MATRIKULA

**Goi-mailako
Erdi-mailako
HEZIKETA
ZIKLOAK**

Uztailaren 5etik 11ra

Energia eta ura



Mantenimentua



Mekanika



Elektrizitatea



Administraritza

e-mail: eskola@lhusurbil.com

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600

Hemen dira San Pedro jaiak

Bada etxeko armairu ezkutuetako kaxei hautsa kendu eta blusak plantxatzen hasteko ordua. Kolorez jantzi beharra dugu herria egun hauetan, alaitasun eta ilusioz, armonia onean kalera ateratzeko garaia da.

Urteek aurrera egin ahala, aldatu egin da Udalaren osiera eta aldatu egingo da gerora ere, aldatu egin da Okendo plazaren itxura, Sorgin Jaiak euren barne-egitura aldatu dute, kokaleku berria estreinatuko dute... Baina festek hor diraute, San Pedro Jaiak ez dute hutsik egin eta beste urtebetez festak Lasarte-Oriako kaleak irribarrez jantziko ditu ekainaren 28tik uztailearen 1era bitartean.

Aurtengoan ordea, zenbait berrikuntzekin datoz herriko festak, lehen aldiz hiru txupinazo izango baitira. Ohi bezala, Sorgin Jaiak irekiko dituzte festak ekainaren 27ko txupinazo alternatiboarekin, arratsaldeko 19:00etan. Udalak ordea, ekainaren 28an bi txupinazo egitea erabaki du lehenengoz eta 2012ko omenduek botako dituzte txupinak San Pedro bezperan.

Lehena, haurren-txupinazoa izango da. Herriko txikiak Pirritx eta Porrotx pailazoak ikusi eta haiek botatuko txupinarekin gozatzeko aukera izango dute eguerdiko 12:00etatik aurrera, eta ziur ez direla marrubi eta txokolatzeko muxuak faltako hain egun berezian. Arratsaldeko 19:00etan berriz, Biyak-Bat eta Jalgunek izango dute txupina Lasarte-Oriako zerura botatzeko ardura. Hau, berriz, Okendon izango da, Udaletxe berritik botako da.

Hortik aurrera, leher egingo du festak. Herriko kaleak giro-



tuko dituzte txaranga eta buru-haundiek, Sorgin guneak, danborradak, zikiro-afariak, barrakak... Baina batez ere guk geuk emango diegu kolorea, herritarrok izan behar dugulako festaren arima, gu gabe ez direlako deus.

Beraz, lauzpabost egunez lotsak etxean utzi, blusa jantzi eta kalera irten beharra daukagu, egitarau oparoa prestatu baitute festa ofizial zein alternatiboan baita. Kolore guztietako jendeak du lekua Lasarte-Oriako San Pedro Jaietan eta urte osoan jo eta ke lanean aritu ostean, badugu herritarrok ondo merezitako festez gozatzeko eskubidea. Barrabaskeria bat edo beste onar daiteke, baina beti neurrian, ondo pasa behar da, baina pasatu gabe.

Aurtengo beste berrikuntza nagusietako bat, txupinazo eta omenduekin batera, Sorgin Jaien kokalekua izango da, historikoki aldarrikatu duten Okendo plazan finkatuko baitira aurtengorainak. Hilabete luzez prestakuntza lanetan aritu ostean, txosna eta karpa muntatzeari ekin zioten aurreko astean eta honezkeron prest dituzte akelarreak egiteko lapiko eta edabe magikoak.

Ikusi beharko da nolako oihartzuna izaten duten kokaleku berriarekin, baina printzipioz, Ostatu-Berri taberna zenaren murla egiteak kolore gehienetako herritarrek poltsikoan sartu ditu. Zenbaitek berriz biziko dituzte garai bateko oroitzapen goxoak, bost egunez bada ere.

Azken finean, hasten den guztiak amaiera izaten duenez, bukatu egingo dira 2012ko San Pedro Jaiak, noski, baina hasi orduko amaieran pentsatzen aritu beharrean, goza dezagun bost egun hauetan egingo dugun bidez!



hurrengo
zenbakia

txintxarri

Uztailaren 3an

2012ko San Pedro festetako argazkiak

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako
Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea: Txakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366 858, 943 371 448, G-20407557 Legezko gordailua: SS513/93 ISSN: 1134-0053 Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800 Erredakzioa: Nerea Eizaguirre, Jon Altuna Iza, Maider Azurmendi, Jon Altuna Egitegi txintxarri@txintxarri.info txintxarri@takun.com Publizitatea: Arantza Artola, publizitatea@takun.com
Administrazioa eta banaketa: administrazioa@takun.com; txakun@takun.com. Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Danok Kide elkartearen Omenduak

“50 urte hauetan egin dugun lana aitortu dute”

Danok Kide Guraso elkartearen 1962. urtean sortu zen Lasarte-Oria. Orduan hazten ari zen herriaren beharrak asetu nahi zituen, egun helduen heziketa iraunkorra eta hainbat ekintza antolatzen dituzte urtean zehar. Bere ibilbide luzean elkarteak herriarentzat hoberena egiten saiatu dela diote elkarteak kideek eta Lasarte-Oria herri izatea izan zen lorpen horietako bat. Danok Kideko lagunekin izan gara elkartearen historia gehiago ezagutzeko.

Nerea EIZAGIRRE

Nola sentitzen zarete omendu izateagatik?

Sortu den polemikarekin pixka bat harrিতuta gaude. Bestetik harro gaude 50 urte hauetan egin den lana aitortu dutelako.

Elkartearen historian elkarrekin ez du partidismo izan. Herriarentzako irekia egon da elkartearen beti.

Herrira irekia eta herriaren beharretara, ezta?

Bai, horrela da. Elkartearen sortu zenean herriko bizilagunen beharrak jaso eta zegozkion Udalari edo Aldundiari bideratzen ziren. Hemen ez zegoen Udalerik.

Orduan, 1962an, herria handitu zen eta modu anarkiko batean gainera, arazo eta beharrak asko ziren.

Hasierako historia dokumentazioagatik ezagutzen dugu. Osasun zentroa jartzeko eskaera, egun Cruz Roja dagoen lekuan jarri zutena, Correos-eko bulegoa, gaur egun garrantzirik ez duten gauzak baina orduan...

Eta Hernani eta Urnieta udalari joaten ginen plan partzialen aurka egiteko.

Gogoratzen dut Urnieta udalari joaten ginen plan partzialen aurka egiteko. Azkenean aulki batzuk jarri zizkiguten txoko batean eta bertan egon ginen.

Baina hezkuntza eta beste arlo batzuetan ere aritu da elkarteak...

Danok Kide famili guraso elkarteak ahal egin duena egin du.

Hezkuntza Profesionala emateko zentroa sortu zen gure lokaletan. Zentroak 6 ikasturte iraun zituen, instalazioak berri behar ziren hezkuntzak horrela zehaztuta eta Udalek ez zuten laguntzarik eman.

Baina hori bezala beste kontu asko ere izan ziren. Herria sortzeko ahaleginak ere garrantzitsuak izan ziren.

Badirudi 1976a, Lasarte-Oria sortzearen aldeko Komisia eratu baino lehen, ez zela ezer egin horren alde. Mugimendu handia egon zen aurretik.

Azterketa soziologiko bat egin genuen eta Madrilerara bisitak egin ziren.

Azterketak herri guztiaren laguntza izan zuen baina Gobernu zibilak bertan beharra uzteko agindu zuen. Lasarte inoiz baino batuagoa izan zen garai horretan. Jende asko mugitu zen, elkarteak inkestak egiteko... %75ak erantzun zuen. Eta aipatu legez, politikoei eten zuten egitasmoa. Ez genuen emaitzarik lortu.

Eguneroko arazoak kontuan izaten genituen, baina bizilagunen eta herriaren etorkizunak ere kezkatzen genituen.

Beraz, ekintzak ahaztu dira...

Bai, horrela da. Ahaztua dagoen beste ekintza garrantzitsua, Emakumeen lanbide zentroa da. Aurrezki kutxa probintzialarekin jarri ginen harremanetan aurrera ateratzeko.

Caritas ere hemen hasi zen lanean. Gerora alderdi politikoak sortu zirenean, ekintza sozio-kulturalak antolatzen hasi ginen ere.

Eta horretan jarraitzen duzue...

Helduen hezkuntza iraunkorra dugu eta gure ohiko ekintzak mantentzen ditugu urtean zehar.

Zinema sozialeko zikloa, Balioetan Hezi hitzaldi sorta, Musika Topaketak eta horiek arrakasta dute.

Eguberrietako jaiekin lotuta, Jaiotzen lehiaketa ere eginen dugu. Baina zerbait gauzak antolatzeari utzi diogu, Lasarte-Oria aldiria, Erregeen Kalgata edo jaiotza erraldoia, adibidez.

Horretaz gain, Emakumeen lanbide zentroan zebiltzanak etortzen dira egunero ekintza desberdinak egitera, gimnasia, pilates, yoga, dantza, jantzigintza, altzari zaharberri-tzea...

Lokalak uzten ditugu ere. Lekurik ez duten Lasarte-Oriako elkarteak uzten dizkiegu, elkarte filatelikoa, Nagusilan, Esperanza Latina elkarteak, EPAko antzerkia, Uztaro kontsumo kooperatibari, eliza ebangelikari... Irabazi gabeko elkarteak uzten dizkiegu. Kutxa eta Nazaret zentroari ere ikastaroak emateko uzten dizkiegu.

Baina San Pedro Jaietan noiz-bait ekintzarik antolatu duzue, ezta?

Bai, horrela da. Danok Kide haurren danborrada sustatu eta lehena antolatu zuen.

Honetaz gain, urte askotan Danborrada antolatu gabe egon ondoren, Danborradako Batzordeak Danok Kideri eskatu zioten 1965tik 1968ra hori antolatzea.

Baina geroztik ez ditugu jaietarako gauzak antolatu. Beste batzuk antolatzen dituzte eta guk beste eginkizun batzuk ditugu.

Herritar bezala nola bizi dituzue herriko jaiak?

Herritar bezala gozatu eta sufrizten ditugu San Pedro Jaiak.

Zarata handia da, baina aste bete dela kontuan izanik ez da horrenbesteko.

Normalean ere mezara joaten gara eta omenaldira goaz.

Aurten txupinazioan eta omenaldian izango gara legeginduz.

Eta aitona garenez, eginkizun horretan ere gozatuko ditugu.



Navarro, Amilibia eta Eguizabal Danok Kideko egoitzan.

- Luxuzko autokarrak.
- 22, 28 eta 31 plazako mikrobusak.
- 56 plazako autobusak.
- Literadun autobusak.

Ubilluts auzoa, 55. poligonoa 9-4 • 20140 ANDOAIN
Tel.: 943 305050 • Faxa: 943 305060
e-maila: info@autocaresurpa.com
web orria: www.autocaresurpa.com

URPA
AUTOBUSAK



Ondo igaro
San Pedro jaietan!



Kaxiporreta Omenduak

“Ez dugu ahaztuko euskalgintzan eta Lasarte-Orian jaio ginela”

Duela 25 urte, Eguberrietan Takolo, Pirrutz eta Porrotx pailazoek bere lehenengo ikuskizuna eskaini zuten herrian. Egun Porrotx, Pirrutz eta Marimotosekin batera Euskal Herriko txoko guztietan ezagunak dira. Ibilbide honetan ikuskizunak, diskak, liburuak, jokoak... eta Irrien kluba sortu dute. Hainbat sari ere lortu dituzte haien hezkuntza lanagatik. Haurren txupinan Takolorekin batera izango direla aurreratu digute, baita omenaldian zerbait berezia egingo dutela ere.

Nerea EIZAGIRRE

Nola sentitzen zarete omendu izateagatik?

Talde bezala 25 urte betetzen ditu. Herrigintzan sortu ginen, euskararen aldeko mugimenduen barruan eta Euskal Herria zabaldu zen.

Baina 25 urte pasa ondoren herrigintzan kokatzen dugu gure lana. Gu bezala, Lasarte-Orian euskararen aldeko mugimendu horretan parte hartzen ari diren beste hainbat elkarte, pertsona, ekimen... horien barruan kokatzen dugu gure burua eta horiena ere da errekonozimendua eta konpartitua dela uste dugu.

Gogoratu orain dela 25 urte A eredu aza baka-rik eskola publikoan, euskara oso gutxi eta herri ekimenak gutxi batzuk zirela. Urte hauetan guztietan aurrera egin da kultura arloan eta beste arloetan. Erabileran ez da hainbeste egin, %10ean mantentzen da eta horri begira dago Lasarte-Oriako euskalgintza, gu horien artean.

Guretzat beti Lasarte-Oria berezia izan da eta izango da, hemen jaio ginelako. Ez dugu ahaztuko euskalgintzan sortu ginela eta Lasarte-Orian jaio ginela.

25 urte hauetan aldaketa ugari izan da taldean, ezta?

Jaio ginenean mutilak ginen

gehienak orain neska dira nagusi.

Euskara eta alaitasuna ziren gure ikurrak, orain euskara, alaitasuna eta baloreak dira.

Egun zuen lanean oso garrantzitsuak dira baloreak...

Haurrak aurrean ditugunez, erreferente bat gara haientzat. Takoloren garaian dagoeneko, ikuskizun batzuk egin genituen, baserriko gaia hartuta, Kintxo Barrilete, Nikaraguako gaia... Beste hainbeste gai ere landu genituen izaera soziala zutenak, baloreekin lotuta eta hortik aurrera pixka bat sakondu genuen.

Hortik etorri dira elkar lanak, elkarte pila ezagutu dugu, tartean gorra, minbizidunak, GEHITU, adop-

zio elkarte, harrera familien elkarte, Gipuzkoako kirol egokituko elkarte...

Irrien Lagunak kluba ere sortu genuen, tartean elkartasun elkarte, honetan 18 elkarte daude integratuta.

Baloreak oso garrantzitsuak dira eta gure lanaren ardatza. Oihartzun handia ere lortu dugu eta pozik gaude gure lanarekin. Lanean jarraitzea, maitatuak sentitzea, gure lana eskaintzen jarraitu ahal izatea. Eta euskararentzat tresna bat izatea.

Zuek zarete jende aurrean zaudetenak, baina Kaxiporretan jende gehiago dago zuekin lanean..

Dozena bat lagun gaude, gidoiak egitekoan, antzezterakoan... lasartearrak dauzkagu, Alex Tetuan, esaterako.

Horretaz gain, bulegoan lan egiten dutenak. Isa Fernandez de Agirre erreportajeak egiten, Julian Tokero ilustrazio guztiak eta gure irudia lantzen, Amaia Tejerria mer-

chandising arduraduna, Egoitz Zelaia teknikaria...

Gure irudia da gehienbat agertzen dena, baina talde bat gara.

Maiatzean herrian izan zineten eta Manuel Lekuona bete zenuten...

Guretzat oso bereziak izan ziren saioak. Eta modu berezi batean ospatu nahi genuen, Bonberenea txaranga ekarri genuen eta Jalgunkoekin batera, Motxila 21... Jai borbila izan zen, parte hartze handiarekin.

Manuel Lekuona kultur-etea bitan bete genuen. Hori da gure saririk handiena eta politena. Egunerokotasun honetan gure maitasuna ematea eta maitatuak sentitzea. Ikustea zein barruraino iristen garen, zenbat pertsonengana eta egunetik egunera dauzkagu horren frogak. Onean eta txar-reen, pozetan eta tristuratan.

Umoreaz galdetzen digutenean, guk esaten dugu,

umorea txiste bat edo irri bat baino gehiago dela, jarrera bat dela esaten dugu. Bizitzaren aurrean jarrera baikorra, jarrera erakitzailea, komunean duzun bizitza bizitzekoa... Eta, alde horretan momentu tristeak eta pozgarriak tartekatu ditugu lagunekin, gaixotasunak eta heriotzak... horrelakoetan ere egon nahi izan dugu gure lagun ondoan. Gure lagunak gurekin egon diren bezala.

Horregatik diogu jarrera bat dela. Gure lana hori da eta maitasun proba etengabe jasotzen ditugu. Eta gure aldetik ahal duguna ematen dugu eta hori da ederrena. Hori da gure saririk politena.

Herritar bezala nola bizi dituzue herriko jaiak?


Normalean lana izaten dugu. Tartekatzen ditugu lana eta herria. Aurten 29an libre dugu, hau dena jakin baino lehenagotik, eta pixka bat gozatu ahalko ditugu.

Guk batez ere egunez bizitzen ditugu jaiak. Garai batean txosna zaleak izan ginen, hemen Uistin kalean jartzen zirenean. Gaez ere gerra pixka bat ematen genuen.

Gaur egun ere gaez zerbait berezia egonez gero, gustatzen zaigu bueltaxo bat ematea baina ez ordu txikiak arte.

Eta batez ere egunez eta disfrutatzen ere, jendeak disfrutatzen duela ikusirik eta parte hartzen duela ikusiz. Guretzako parte hartzea garrantzitsua baita eta ahal dugunean beti esku bat botaz.

Gogorazi behar dugu Sorgin Jaietan urtero eskaini dugula saio bat. Guk ere jai herrikoien mugimendua bultzatu nahi genuelako eta orduan, parte hartu izan dugu pailazo eta pertsona bezala.



Poxpolin Marisorgin ikuskizuneko irudia. Hau 2003an egin zuten herriko pailazoek.

KATXIPORRETA

Ondo igaro herriko jaietan!

INQUIETUD
Neurriak 36tik... 60ra

Nagusia 49 • Tel.: 943 370 290 • Lasarte-Oria

BIZKER
IMPRESION DIGITAL
ONDO PASA SAN PEDROAN!

- Inprimategi digitala
Txartelak, Fakturak, Albaranak, Zozketa-txartelak, Kartelak, Katalogoak etab.
- Formatu handiko kartelak eta Argazkiak
Standak, Enkusketa azokak, Ekitaldiak
- Kanpoko eta barruko errotulazioa
Furgonetak, Kamioiak, Tokioak, Saitioak, Museoak...

Geltoki Kalea, 9 - Tel.: 943 36 20 51 - Lasarte-Oria

Jalgune Omenduak

“Pozik eta harro gaude”

Jalgune-Gure Ametsa elkarteak minusbaliatu fisiko eta psikikoekin lan egiten du egunero. Iaz 20. urteurrena ospatu zuten eta aurten Lasarte-Oriako Udalak eta Ostadar SFK-ek egiten duen lana saritu nahi izan dute. Gazte eta begiraleek ederki gozatzen dute urtean zehar egiten dituzten ekintzetan, baina jaietan ere ez dira geratzen eta haur danborradan edo Oriako jaitsieran ikusiko ditugu gazteak. Aurten arratsaldeko txupina bota eta alaituko dute.

Nerea EIZAGIRRE

Nola sentitzen zarete omendu izateagatik?

Pozik eta harro gaude. Harrituta ere bai.

Gazteak ez dira oraindik oso kontziente. Omendua izateak zer esan nahi duen ez dakite. Momentuan izango da, Txupinazoa momentuan eta 29ko omenaldian jendea ikusten dutenean konturatzeko unea izango da. Txupinazoa bi edo hiru balkoira igo eta beraiek protagonistak direla ikustean.

Ez dakite oso ondo zer den omendua izatea. Baina hainbeste jenderekin ekintza batean egotea eta jendeak beraiei begiratzea. Integritateak sentitzen dira eta guretzat oso garrantzitsua da hau.

Gu ere orain gara kontzienteago, eguna iritsi ahal.

Bileretan eta omenaldiko emanaldia prestatzen garrantziaz konturatu gara.

Egitarrak aurrera ireki eta

Jalgune bertan omendu bezala dagoela ikusteak... Danok Kide elkartearekin 50 urte bete dituela eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin... Jakinda herrian dauden elkarte kopurua eta mugitzen duten jendea gu hautatzea, benetan oso harro gaude.

20. urteurrena dela eta, iaz mugimendu dezente izan genuen iaz baina azken finean 24 pertsonako elkarte bat gara.

Baina hogei urte hauetan hainbat herritar izan dira elkarteak, ezta?

Bai, horrela da. Horren harira, begiraleek zoriondu nahi ditugu, 20-21 urte hauetan Jalgunen parte hartu duten guztiak.

Gure intentzioa da omenaldian guztiak parte hartzera gonbidatzea, elkarteak egon

diren begiraleak, gazte ohiak, laguntzaileak, bolondresak...

Eta bereziki, urtean zehar gurekin ekintzetan egoten diren elkarte edo taldeei txupinazoa eskatu diegu.

Horretaz gain, zoriondu nahi ditugu elkarteari hasiera eman zioten ama horiek. Behar batetik abiatu eta horren alde borrokatu zutenak. Gu orain aldi gozoa ari gara jasotzen.

Gainera, oraindik gurekin jarraitzen dute. Oroitzapen berezi bat haintzat beti.

Horretaz gain, garrantzitsua izan da beti Udalaren laguntza. Bidelagun izan da bai lehen eta bai orain.

Urtero parte hartzen du Jalgune San Pedroko hainbat ekintzetan eta aurten txupinazoa eta omenaldia izango duzue...

Bai aurten, txupinazoa, omenaldia, Oriako jaitsiera, sorgin dantza eta danborradan parte hartuko dugu. Lehenengo bi egunetan tope ibiliko gara.

Haiek eta guk gustura egiten ditugun ekintzak dira eta haiek mantentzen saiatzen gara. Gazteei begira egiten dugu, baina guk ere horretan sinesten dugulako egiten

dugu. Herriko jaiak dira eta bizi egin behar dira.

Garrantzitsua da haintzat horrelako ekintzetan parte hartzea?

Lagun artean egoteko aukera ematen die. Eta gogoia pizten die. Oriako jaitsiera, “zer da?”, Sorgin jaiak antolatutakoa. Sorgin jaiak txosna guinea dela azaldu eta agian bertara hurbiltzen dira zerbait hartzera.

Haur danborradan hamar urte dira parte hartzen dugula eta azken urteetan laguntzaile modura ere aterata dira gazteak.

Eta ekintzen ostean, pote bat hartzera geratzen dira edo egitaraua begiratu eta danborradaren ostean zer dagoen ikusi eta horretara ere joaten dira.

Iaz blusa egin genuen eta kuadrila baten barruan sentitzen dira eta gara.

Jaiak beste era batera bizitzeko dituzte. Iaz Sorgin Dantza egin zutenean ere horrela izan zen, beste 300 pertsonen zeuden eta gozatu zuten.

Festa giroan gehiago sartzen dira, haiek eta familiak.

Orduan familiek ere gozatzen dute jaietaz...

Oriako jaitsieran, esate baterako, denak joaten gara. Lau txalupatan d o a z

eta begirale eta familiak animatzen joaten gara bide osoan.

Amaieran denak elkartu direnez pote bat hartzera joaten dira.

Familiatan ere aldaketa nabari da.

Jalgune pixkanaka ezaguna egiten ari da herrian egiten dituen ekintzengatik...

Azken urteetan hasi dira guri deitzen, lehen ate joka joaten ginen.

Eta omentzeko gu aukeratu gaituzte, herri mailan down sindromea duen mutil bat izango da txupina botatzeko arduraduna.

Ostadarrek ere Auzolagun saria eman zigan maiatzean. Herrian gaude eta herriak ere kontuan hartzen gaitu.

Eta gazte hauek bizi duten errealitatea aitortu behar da eta ezagutzera eman.

Egoera hau normalizatzeko bidea ere bada hau. Jendea zerbitzu edo elkarte honen beharraz kontura dadin balio dute omenaldi eta aitortza hauek. Gazte hauen errealitatea dena izaten jarraitu bitartean beharra izango da.

Omenduak izatea ahalbidetuko die hitza eta protagonismoa euren izatea. Izan ere, besteek aukera hauek izan ditzakegu noiz behinka, baina haiek ez daukate halako aukerarik. Eta herritarrak hortaz kontziente izatea ere garrantzitsua da.

Horregatik, errealitatea kalera ateratzeko urtero ekintzak egiten ditugu. Eta gauza gehiago egiteko prest gaude, nahi duenak dei dezake.

Gure helburua beste jendea probokatzea eta elkarteak ezagutzera ematea da.



Ederki pasa zuten Jalguneko lagunek Motxila 21 taldeko kideekin.



San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

**Hipodromo etorbidea 3
Lasarte-Oria
Tel.: 943 366176
labegoxo@euskalnet.net**

Festetan etorri gurekin gosaltzera!





Uxune Iparragirre Kartel lehiaketako irabazlea

“Gutxirekin asko adierazten du”

Zabaleta auzoko gazteak irabazi du San Pedro jaiak iragartzeko kartel lehiaketa

Aurtengo Sanpedrotako kartela egin du Zabaletako gazteak. Udalak martxan jarritako lehiaketa izan da eta aurketutako lanen artean herritarrei gustukoena bozkatzeko aukera luzatu zitzaizen lasarteoriarasarean.eu web gunean. Bozka gehien lortutako bi kartelen artean berriz, azken hautaketa egin zuten Festetako batzorde kideek. Azkenean, Uxuneren lana izendatu zuten garaile.

Maidar AZURMENDI

Mota honetako lehen bakarkako lehiaketa izan da Uxune Iparragirrerentzat eta oso pozik dago lortutako sariarekin. Berriki amaitu ditu Diseinu Grafiko eta Editoriala ikasketak Urrietako Salesiarren eskolan eta deseatzten dago diseinuaren munduan guztiz murgiltzeko.

Zure kartelak iragartzten ditu San Pedroak. Nolatan aurkeztu zinen lehiaketara?

Orainxe bukatu ditut diseinu ikasketak eta gogoia neukan lehiaketa errealean nire lan bat aurkezteko. Orain arte eskolatik taldeka hainbat lan egin ditugu eta tartean irabazi ere egin dugu lehiaketaren bat adibidez, Tolosako Museotako Nazioarteko eguneko kartela.

Lehiaketa bera aukera bat zen ikusteko nire lanak eskolatik kanpo duen erantzuna eta egia esan emaitza poztekoa izan da.

Irabazlea zure lana zela jakitean, nola hartu zenuen albisteak?

Egia esan oso oso pozik. Lehen lana izan da horrelako lehiaketa batean eskolatik kanpo eta egia esan bikain aterata da. Hemendik aurrera egiten ditudan lanek halako harrera izatea gustatuko litzaidake!

Zertan inspiratu zinen?

Minimalista da. Asko landu dudan korrante artistikoa izan da minimalismoa eta atsegin dut. Gauza gutxirekin asko adieraztea da honen helburua eta nire kartelak kutsu hori du. Hasieratik jo nuen minimalismoa eta esan behar dut aurretik beste hamabost edo egingo nituela.

Zer adierazten da?

San Pedro jaietan pentsatzen hasita, niri burura etortzen zaidan lehenengo gauza Sorgin dantza da. Herria biltzen duen ekimena da niretzat eta hau hautatu nuen irudi nagusi bezala. Koloreei dagokionez, gorria argi izan behar zuen horietako bat eta beldur gehiena ematen zidana zuriaren erabilera zen.

Azkenean jendeak festa koloreekin lotzen du eta bane-kien deigarriena izango zela kartela hain zuri izatea. Betiko diseinu horiekin guztiz haurtsi behar dela iruditzen zait.

Egia da jaso ditudan kritikak zuriarengatik izan direla, jendeak esaten dit zuri gehiegi daukala kartelak eta agian “soso” iruditzen zaiela. Niretzat kartel desberdin bat da eta zuriak gauza asko esaten



Uxune Iparragirre herritarrak egin du Sanpedroak iragartzten dituen kartela.

dituen kolorea. Nire ustez atentzioa deitzen duen kolorea da kasu honetan.

Gainera, orain arte egon diren kartelekin aldaketa nahi nuen adierazi. Festa adierazi nahi du aldi berean eta edozeinek parte har dezakeela jaietan, horregatik ez dauka aurpegiarik, neska, mutila izan daiteke...

Kritika asko jaso al dituzu?

Iritzi asko jaso ditut eta oraindik jasotzeko prest nago. Konstruktiboak izango dira eta aurrerantzean ziur lagunduko didate nire lana hobetzen. Orokorrean kanpoko iritziak jasotzea oso aberasgarria da diseinatzailearentzat.

Saria 300eurokoa da...

Bai ez da asko baina niretzako parte hartzea izan da garrantzitsua. Ez nintzen sariarengatik aurkeztu, pasatako orduak ez dira diru horrekin ordaintzen.

Lehiaketa gehiagotan aurkezteko asmoa daukazu?

Lana topatu bitartean aukera ona izan daiteke mota honetako lehiaketetara aurkezteko. Azken batean hauek ere zure lana ezagutzera emateko aukera aproposak izan daitezke. Denbora dudan bitartean asmoa behintzat lehiatzen jarraitzea da.

Jendeak bozkatu ahal izan ditu kartelak...zure ingurukoak horretan izan al dira?

Egia esan ez. Berandu jakin zuten bozka emateko aukera zutela. Askok ez zekiten lan bat aurkeztu nuela ere.

Aldaketak egin al dizkiote kartelari?

Ba egia esan logo guztiak

gehitu dizkiote kartelari. Bane-kien sartuko zituztela baina hain handiak izango zirenik ez nuen uste. Aitortu behar dut ez zaizkidala gustatzen.

Kaleetan zure lana ikustea arraro egiten al da?

Ba egia esan oso arraroa da. Asko harritu ninduen Txintxarri eta udalaren web gunean ikustek eta noski, kalean ikustea ere deigarria egiten zait.

Aurkeztutako lanen artean besteak zer iruditzen?

Egia esan behar badut ez zitzaidan besterik gustatzen. Egia da lehiaketa irekia zela eta baldintzarik gabekoa beraz errespetu guztiarekin esaten dut, nire iritzia da eta diseinu ikasle izanda agian beste ikuspegi batetik ematen dut iritzia.

Festetarako mezu bat...

Ba jendea parte hartzea animatu nahiko nuke, kalera ateratzea eta ondo pasatzea!

Asko harritu ninduen irudia Txintxarriren eta Udalaren web gunean ikusteak eta noski, kalean ikustea ere deigarria egiten zait.

Marka guztietan %10 edo %15eko beharapena udaberri eta udarako arropetan

ika haur eta gazteentzako jantziak

Levis galtzetan eskaintza berezia **Asko disfrutatu San Pedrotan !**

Geltoki Kalea 3 · Lasarte-Oria 20160 · Tel.: 943 045978
www.ikaarropadenda.com



Taxio Arrizabalaga Gazteria, festak eta kirol batzorde burua

“Herritarrek egindako San Pedroak dira aurtengoak, goza ditzagun”

laz ez zuen egitarauan aldaketarik egiterik izan, beraz gusturago da aurtengoekin

Taxio Arrizabalaga gazteria, festak eta kirol batzorde buru da. Udal gobernuko kide gazteena da eta aurtengo San Pedroak berarentzat bereziak izango dira zalantzarik gabe. Azpimarratu moduan, iaz dagoeneko zinegotzi zen herriko festetan baina udal gobernura heltzean San Pedrotako egitaraua guztiz itxita aurkitu zuen udal gobernu berriak eta ia ez zuten aldaketarik egin ahal izan. Aurten bai bereak eta herritar guztienak sentitzen ditu San Pedroak, inoiz baino gehiago.

Maider AZURMENDI

Festak hastear dira eta bada herrian egun haue-
tan bereziki urduri sentitu
den gaztea. Taxio Arrizabala-
ga gazteria, festak eta kirol
arlotako burua da eta dagoene-
ko irrikan dago jendeak pres-
tatutako festa egitarauaren
aurrean duen erantzuna ikus-
teko. Kaleak jendez gainezka
ikuski nahi ditu eta herriko fes-
tak inoiz baino parte hartzai-
leagoak izatea desio.

Zinegotziaren solasean
izan ginen eta festa egitaraua-
ren inguruan hitz egiteaz
gain, udal gobernuan egin
duen lehen urtearen balora-
zioa ere egin du.

Nola biziko dituzu aurtengo San Pedro jaiak?

Ba argi daukat guztiz desber-
dinak izango direla aurtengo-
ak niretzat. Batetik lanean
egon beharko dudalako, adi
guztia ondo ateratzen dela
ikusten eta bestetik, lehenen-
go San Pedroak direlako zine-
gotzi bezala eta horrek
tentsioa eta urduritasuna era-
giten du.

Egia da iaz dagoeneko kar-
guan ginela herriko festetan
baina egitaraua guztiz itxita
aurkitu genuen gu iritsi gine-

nerako eta inplikazioa ezin
izan zen handia izan.

Festetako zein ekintzetan parte hartuko duzu?

Ba herritar bezala Sorgin dan-
tzan aterako naiz eta horretaz
gain, gauetan kontzertutan eta
parrandan ibiliko naiz lagune-
kin beti bezala.

**Aurten parte-hartzea sustatze-
ko asmoz herritarrekin hain-
bat bilera egin dira festak
antolatzeko. Zergatik proze-
su hau?**

Guk ikusten genuena
zen jaiak herritarre-
nak direla eta
nolabait

bideratu beharra zegoela jai
egitaraua herritarrek bereak
osatzea. Garrantzitsua da
herritarrek aukeratzea nolako
jaiak eta zein ekintza nahi
dituzten.

Hau dela eta antolatu
genuen Jaietan Blai parte har-
tze prozesua. Bi fasetan egin
da eta balorazioa oso ona da.
Jaiaren egitaraua bilera hauetan
ateratuko ekimenekin osatu da
guztiz. Herritarren proposa-
men guztiak daude honen
oinarrian. Izugarriko garran-
tzia ematen diogu jai egitarau
honi benetan herritarrengandik
jaiotakoa delako. Honek jai-
etan herritarren inplikazioa
handiagoa izatea era-
gingo duela uste
dugu.

**Egitarauari dagokionez,
zertan bereizten da aurtengo
aurrekoetatik?**

Hasteko lehen aipatu
bezala, egitaraua osatze-
ko modua izan da azpi-
marragarriena.

Herritarren proposa-
menak oinarri, besteak
beste aipatu daitezke, bi
txupinazo egitearen



Tasio Arrizabalaga, festaren batzordeko burua, gustura dago 2012ko San Pedro jaietako egitarauarekin



Incomán




👉 Ikerlanak, elektrizitatea aurrezteko moduez.

👉 MIC transpalak.

👉 MIC metagarriak.

Ondo pasa San Pedrotan !!

Antxota kalea 2 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 373198 • Faxa: 943 365935
www.incoman.es
incomansi@terra.es



Txupinazo handia arratsaldean egingo da, jende gehiago biltzeko eta nolabait jaiari hasiera indartsuagoa emateko.

idea. Bata haurrei zuzendutako eta bestea, txupinazo handia dena arratsaldera pasatzea jende gehiago biltzeko eta nolabait jaiari hasiera indartsuagoa emateko.

Horrekin batera omen-
duen papera aldatu da. Aurt-
ten hiru talderi egingo zaie
omenaldia eta hauek protagon-
istagoak izango dira. Pregoia
botako dute, txupinazoak...
bestetik, txosnarekin aurten
bilatu den formula aipagarria
da, Okendon jarriko da festa
gune indartsua izan dadin
herriko plaza.

Bestetik bigantxekin gerta-
tu dena aipatuko nuke, aurten
gutxiago daude. Parte hartze
bileretan xexenak egitarautik
kentzea proposatu zen baina
jendeak badu zaletasuna eta
aurten gutxiago jarri arren
mantendu nahi izan ditugu.
Ikusiko dugu herritarrek nola
erantzuten duten eta horren
arabera ikusiko da datorren
urtean hauek egitarauan man-
tentzea merezi duen.

Sorgin Jaiak, zein prozesu burutu da hauekin?

Sorgin Jaiak-eko kideek aza-
roan hasi zuten barne
hausnarketa prozesu bat
eta erabaki zuten
jarraitu behar

zutela bere gunea, txosna eta
egitaraua izaten. Hori erres-
petatuta, udalak Okendo festa
gune nagusia izatea nahi due-
nez, txosna Okendon jartzea
proposatu genien, karpa pla-
zaren atzeko parkean eta
eszenatoki bakarra elkarbanatu
udala, Ttakun eta Sorgin
Jaiak-en artean. Nik uste dut
oso positiboa izango dela
azken erabaki hau.

Dirua beharrezkoa al da festa on batzuk antolatzeko?

Jai egitarau on bat prestatzeko
ez da diru asko behar. Behar
dena da herritarrak jaiak egi-
teko prest, kalera ateratzeko
gogoia...Diruak ahalbidetzen
duena da daukagun lau egun-
etako egitarau oparo bat
osatzea da. Argi dagoena da
kontzertuak antolatzeko, su
artifizialak egoteko beste
hainbat ekintzetarako bezala,
dirua beharrezkoa dela.

Ekonomikoki udalaren egoera ez da oso ona, asko murriztu al da festetarako bideratzen den partida?

Aurrekontutan nire sailek ez
dute murrizketarik izan iazko
zenbakiak mantendu ditugu
baina saiatu gara dirua
aurrezten bai. Adibide garbi-
na su artifizialena izan daite-
ke, garestiak dira eta aurten
erabaki dugu horren erdia
gastatzea hautetan.

Kartela hautatzeko ere lehiaketa martxan jarri duzue, nola balaratzen duzu parte hartzea? Gustura gelditu al zara emaitzarekin?

Ni pertsonalki oso



San Pedro jaien aurkezpenean, herritarren babesa izan zuen Tasio Arrizabalagak.

pozik nago, asko gustatzen
zait kartela. Egia da duela urte
batzuk ere horrelako lehiaketa-
tak egin izan zirela baina aurt-
engoa desberdina izan da.
Guztira 17 lan jaso genituen
kalitate eta estilo guztiz
ezberdinekin eta azkenean
hautatu izan dena niretzako
oso polita da.

Herritar batek jarri dio iru-
dia jaiari, oso esanguratsua
eta guztiz lotuta gure San
Pedro jaiekin.

Dagoeneko urte bete egin duzue udalean, zinegotzi gazteena izanda nola bizi duzu urte bete hau?

Oso ondo, oso gustura pasa
dut urtea baina aldi berean
gogorra ere izan da. Zinegotzi
lanean sartzea ez da lan erra-
za izan eta aldi berean ikas-
ten egon naiz. Zentzu
horretan pisutsua egin zait
urtea baina ondo oso gustura
nago.

Egia esan ardura asko dira,
uste baino gehiago baina

herriarengatik ari zara lanean
eta emaitza onak ikusterako-
an aurreko lan guztia eta zaila
ahaztu egiten duzu. Askok
betetzen zaitu jendea zuk
egindako proiektuarekin
pozik dagoela ikustea. Kritika-
kak egoten dira tarteka baina
horiek ere entzun behar dira
eta ona da hauen berri izatea.
Lan karga handia da eta egia
esan aurretik ezin da imajina-
tu ere egin zenbat lan egiten
den hemen.

Zeintzuk dira lortu nahiko zenituzkeen helburuak?

Gazteria eta festa atalei dago-
kionez, gustatuko litzaidake
gazteri politika sendo bat
garatu ahal izatea. Benetan
gazteekin zerikusia duten
politikak gauzatzea eta tes-
tuinguru horretan Gazteleku
sartuko nuke. Nire lehenasu-
netako bat Gaztelekuaren
proiektua ondo garatzea da
eta honekin lortu herriko
gazte guztientzako gune dina-
miko bat. Ezinbestekoa ikus-

ten dut gazteak bilduko
dituen espazio hori sortzea.

Kirolari dagokionean,
auzoz-auzoko bileretan behin
eta berriro kiroldegiaren ego-
era kaxkarra aipatu da eta
ahal den neurrian instalazio
hauek konpontzea izango
litzateke nire nahia baina
esparru honetan gauza asko
dira egin beharrekoak.

Kiroldegiaren egoera
denek ezagutzen dugu, 25
urte ditu, txikia da, zaharra
dago baina ezin dugu hau
bota eta berri bat eraikitzea
pentsatu. Dagoena dago eta
egoera ekonomikoa zein den
ondo dakigu. Hau dela eta
posible dena berritzen joango
da, kasu honetan Michelingo
zelaia izan da aldatuko dena
uda honetan bertan.

Gainera lanean ari gara
herriko kirol taldeekin batera
beharrak identifikatu eta gau-
zak hobetzeko. Elkarlan honek
herriko kirol panorama indar-
tzea ekarriko duela uste dut.

Festa girora bueltatuz, zer esango zenieke herritarrei?

Festetan parte hartzeko, San
Pedro hauek denonak direla,
denon proposamenetatik jai-
ak direla eta animatzeko,
kalera atera eta festaz goza-
tzeko!

Herritarren proposamen guztiak daude egitarau honen oinarrian, beraz, jaietan herritarren inplikazioa handiagoa izango dela uste dugu.

TABERNA

Buenetxea

KAFETEGIA

D.O. Ardoak

Probatu al dituzu gure gosariak?

Tostadak
Kruasanak plantxan
Txokolatea txurroekin

.....

FESTETAN:

- Pintxo beroetan aukera zabala
- Bokata bereziak
- Razioak
- Sandwichak
-

Kafe bereziak:

Irlandesa
Eskoza
Kaputxinoa
Bonboia

Pablo Mutiozabal 2 • Tel.: 943 369508
LASARTE-ORIA

Mikel Iartza, Aitor Zarzuelo, Paulo Eizmendi eta Iker Elizegi Hilotz rock taldeko partaideak

“Heriotza beti ageri da kantuetan”

■ V. Musika Maketen Lehiaketako Lasarte-Oria saria irabazi du Hilotz-ek eta Okendon joko du 27an herriko taldeekin ■ "Hil ala Bizi" lehen diskoa grabatu du herriko metal taldeak

Hilotz Lasarte-Oriako metal taldea una gozoan da. Batek herriko V. Musika Maketen Lehiaketako Lasarte-Oria saria irabazi dute eta beraz, Sanpedrotan, hilaren 27an, gauean, arratsaldeko Sorgin jaien txupinazoaren ondoren Okendon jotzeko aukera izango dute, eta bestetik "Hil ala Bizi" izenburua duen lehenengo diskoa argitaratu dute. Kopia egiten ari dira eta kontzerturako ale batzuek prest izatea espero dute.

Jon ALTUNA IZA

Herriko taldeen kontzertua antolatatu du Udalak Sorgin Jaiekin batera ekainaren 27an: Hilotz, V. Musika Maketen Lehiaketako herriko irabazlearekin batera, The Garax eta Trikihots taldeak eta DJ Zebo disko jartzailea izango dira Okendon.

Hilotz taldeko Mikel Iartza, Aitor Zarzuelo eta Iker Elizegi kontaktu digutenez "oso pozik" daude sariarekin. Herrian badaude hainbat rock talde baina lehiaketara soilik hiru talde aurkeztu ziren eta Hilotz-i eman diote saria.

2011 urteko uda aldean hasi zineten han eta hemen jotzen, ezta?

lazko udan ez genuen gehiegi jo. Gehiena urteko bigarren zatian, irailetik aurrera, jo genuen.

Eta zer moduz dator aurtengo uda?

Ekainean piraten lehiaketako finalerdietan parte hartu dugu eta ea Donostian Aste Nagusian jotzeko aukera daukagun, San Pedrotan joko dugu herrian eta ea udarako kontzertu gehiago ateratzen diren.

Beste lehiaketa batzuetara ere aurkeztu gara. Ea suerterik daukagun.

"Hil al Bizi" lehen diskoa aterako duzue, ezta?

Bai, bukatuta dago, lehenengo aldiz joan gara estudio batetara eta hor dago. CDak egiten ari dira orain.

Gustura zaudete diskoarekin?

Bai soinu kalitate aldetik nahiko ona du, Legazpin grabatu dugu lagun batzuekin, Subeltza estudioan. Tolosako Switch taldean jotzen duen Ander Zubillaga lagunak grabatu du, eta Elbereth Legazpiko taldeko lagun Gaueko Arimak diskoetxeak aterako du.

Ez da diskoetxe normala, taldeei bultzada emateko helburua duen elkarte da, eta beraiekin diskoa ateratzeko aukera eman digute. Gure lana zabalduko dute.

Auto-produzitu duzuela esan daiteke beraz...

Bai, guk ordaintzen dugu, baina beraiek banatuko dute. Musika denda batzuekin harreman ona dugunez, hor saltzen saiatuko gara eta gure kontzertu guztietan ere egongo da salgai.

Bestalde, promozionatzeko kanta batzuek You-tubera igoko ditugu, internet-ekin ate asko zabaltzen zaizkizu eta.

Zenbat abesti dira?

Intro bat eta bost abesti.



Hilotz taldeko kideak Abend tabernan 2010 amaieran eskaini zuten kontzertuan.

Legazpiko Subeltza estudioan grabatu dugu "Hil ala Bizi" diskoa eta Gaueko Arimak diskoetxeak zabalduko du

Jarraitzen duzue Heavy eta Trash estiloarekin?

Bai eragin hori badaukagu, betidanik, baina ez da hori bakarrik. Azken finean, metal talde bat gara, eta estiloak jendeak jartzen dituen etiketak dira, estereotipoak.

Zuen estilo propioa, nortasuna, sortzen ari al zarete?

Bai, baina beti esaten dugu irekiak izan nahi dugula. Entzuleari agian ez zaio gustatzen taldeak asko aldatzea,

Dena den, bidea apur bat finkatu al duzue?

Bai, baina beti esaten dugu irekiak izan nahi dugula. Entzuleari agian ez zaio gustatzen taldeak asko aldatzea,

baina guk uste dugu, orain hau egiten dugula eta gero askalo.

Letrak zeri buruzkoak dira?

Heriotza beti ageri da, "Hil al Bizi" lanean ere bai. Esan daiteke, bizi garen bitartean heriotza beti dagoela hor, edozein momentutan agertzen dela, eta orduan gure kantetan, gaixotasunak, gudak... agertzen dira. Baina ez dugu horietaz hitzegiten gustatzen zaizkigulako. Kantuak kritikoak dira.

Sanpedrotan aukera ona daukazue herritarren aurrean diskoa erakusteko.

Bai. Ea herrikoak animatzen diren. Oso gogotsu gaude

herriko festetan lehen aldiz jotzeko, gainera lehenengo gauean, jende gehien izaten denean, Lasarteko beste talde batzuekin.

Beste taldeekin jota lagun asko egiten dira, ezta?

Bai. Beste taldea ezagutu, agian kontutan hartzen zaituzte eta beste egun baterako kontzertuak etorri daitezke. Bai jotzen dugun talde guztiekin edo gehienekin harreman ona izan dugu, zerbait ahazten baduzu utzi egiten dizute...

Baduzue beste talde lagun kuttunen bat?

Agian Elbereth taldea, Legazpikoak dira.

Nonbaiten jotzeko gogorik badaukazue?

Lasarten jotzeko gogo handia dugu, festetan ez dugu inoiz jo eta herriko jende asko ez da etortzen gure kontzertuetara. Hemen, ez dago heavi heavirik.

ondo igaro jaietan!

• EUSKAL HERRIKO SUKALDARITZA

• JANGELA EGOKI-EGOKIAK, EZKONTZAK, JAUNARTZEAK ETA BESTE EDOZER OSPATZEKO

• ETXEKO ESPEZIALITATEA: PARRILLAN ERRETAKO ARRAINA ETA HARAGIA.

DANA ONA
JATETXEA

restaurante@danaona.com
Zubieta (Hipodromoaren ondoan)
Tel.: 943 365347/943 361731 • Faxa: 943 366020





Herriaren aurrean jotzeko gogo handia dutela adierazi du Hilotzek. Asteazkenean hilaren 27an izango dute aukera, duten onena eman eta euren musika 'ahal den gutzia zabaltzeko'.

Herriaren aurrean jotzeko gogo daukagu. Gainera iaz giro oso ona egon zen sanpedrotako kontzertuan. Aukera ona da.

Ateratzen diren kontzertu guztietan eta ahal dugun guztietan gogoz jo behar dugu gure musika ahal den gutzia zabaltzeko.

Metal-fest jaialdietan jo al duzue?

Bai iaz lehenengo aldiz egon ginen hard rock gauean eta aurten errepikatu dugu. Brutal gaua deitu diote, gure estilokoa zen, iaz baino gehiago, zenbait taldek jotzen zuten, Dominium, Numen... eta Elbereth taldekoak ezagutu genituen.

Ikusleak ere musika hori gustuko dutenak izango ziren...

Bai, taberna batean jotzean lagunak joaten dira ikustera, baina horrelako kontzertuetan promozio handiagoa izaten da.



Heavy eta Trash eragina badaukagu, betidanik, baina Hilotz taldea ez da hori bakarrik. Azken finean, metal talde bat gara

Euskal Herritik kanpora joateko asmorik ba al daukazu?

Pentsatu dugu eta bai, ea urtean behin horrelako irteera bat egiteko aukera daukagun. Badauzkagu internet bidez ezagututako lagun batzuek eta esaten digute agian kontzerturen bat edo zerbait egiteko.

Gogoia badaukagu eta ikusiko dugu.

Gaur egun heavyak galtza motzetan zabiltzate?

Udan behintzat bai. Eta neguan ere bai askotan.

Ikasten segitzen duzue?

Ikasturtean zehar zaila egiten zaigu ikasketa eta musika lotzea, Aitor Arrasaten eta

Mikel Iruñean, kanpoan ari direlako ikasten. Asteburutan elkartzen gara.

Zailtasunik ba al duzue beraz abesti berriak sortzeko...

Diskoan grabatu ditugunez aparte, beste lauzpabost abesti ere badaukagu. Denak ez ditugu joko kontzertuan, bestela ez zen eta maketaren aurkezpena izango. Pixkanaka joango gara kontzertuetan abesti berriak sartzen. Eta abesti berriak pentsatzen.

Nola sortzen dira bada, abesti berriak? Askok kostatzen al zaizkie?

Inspirazioaren arabera. Jotzen hasi eta nahi gabe ateratzen dira gauzak egun batzuetan. Gero hurrengo egunean entzun eta batzuetan ez zaigu gustatzen. Kanta osoa eginda izan arren, estudioara joan garenean konponketa txikiak egin ditugu bertan eta beraz kantak lehen aldiz jo genituenetik aldatzen doaz.

aldika 
 produkt u bereziak

ahatekinak
 ehizak eta hegaztiak
 bakailao gezatua
 onddoak
 marinatuak
 olagarroa


 San Pedro
 jai zoriontsuak
 opa dizkizuegu!

Industrialde 19-20 • Tel.: 943 377089aldika@euskalnet.net



Otordu eta ikuskizunak Ttakunen eskutik

Sorgin dantza, sagardo dastaketa, bertso saioa, zikiro afaria eta kantu jira antolatuko ditu urtero bezala Lasarte-Oriako euskara elkarteak

Ttakun elkarteak aurreko urteetan bezala hainbat ekitaldi antolatu ditu San Pedro jaietan, beti ere euskal giroa herriko kaleetan zabaltzeko helburuarekin. Urtero urtero herritar askok hartzen du parte gainera jaietako ekintza hauetan: Sorgin dantza ikuskizun eta kalejira, bertso saioa, kantu jira, haurren bazkaria, sagardo dastaketa eta Zikiro afarian besteak beste.

San Pedro Egunaren bezperan hasiko da Ttakunen egitaraua. Haurren txupinazoaren ondoren (12:00etan), 13:30etan haurren kalejira eta 14:00etan haurren bazkaria antolatu ditu Ttakunek aurreko urteetan bezala.

Begiraleen laguntzarekin Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. maila arteko ikasleak Okendo plazatik aterako dira kalejiran Atsobakar auzoraino, bertan elkarrekin makarroiak bazkalduko dituzte eta bazkalostean Busti Blai ur festa egingo dute gainera. Urtero giro ederra izan ohi da Atsobakar inguruko etxeetan: ondo pasatzen dute beroari aurre egiteko azpian ura eskatzen ari diren haurrek, eta baita balkoietatik ura botatzen duten herritarrek ere.

Ttakun kultur elkarteak eskaera egin nahi die Atsobakarreko bizilagunei haurrak haien balkoietara hurbiltzean ura botatzeko.

Sorgin dantza

Sorgin dantza, aurten aurreko urteetan baino lehenago abiatuko da Oriatik, 16:30etan gutxi gorabehera, ohiko ibilbidea eta geldialdiak egingo ditu, besteak beste Biyak Bat elkartearen, Udaletxearen parean eta Pablo Mutiozabal kalean, eta 19:00etan txupina bota aurretik amaituko da Okendon. 1994tik antolatzen du Ttakunek Lasarte-Oriako herriaren eta bertako festa nagusien ikur bihurtu den sorgin dantza.

Azken urteotan parte hartzaileen kopurua asko ugartu da, haurrak ere egiten dute



Sorgin Dantza kalejira 28an arratsaldeko 19.00ak baino lehen bukatuko da Okendon, hain juxtu txupina jaurti aurretik.

1994tik Ttakunek antolatzen du festen ikur bihurtu den sorgin dantza. Azken urteotan parte hartzaile eta ikusleen kopurua asko ugartu da

kalejira eta dantza eta aurten derrigorrez 18:40ean amaitu behar da Okendo plazan, ondoren botako baita jaien

hasierako eguneko bigarren txupina, beraz parte hartzaileei 16:30etarako Orian egoteko eskatzen zaie.

San Pedro Eguna

San Pedro Egunean arratsalde-gauean euskal giro bikaina ziurtaturik egongo da Ttakun elkarteak antolatutako ekitaldietan. Sagardo dastatzea eta erromeria 18:00etan hasiko da Okendon, bertso saioa 20:00etan Manuel Lekuonan eta Zikiro afaria 22:00etan berriro ere Okendon. Arratsaldeko dastaketan herriko Solla-



ETXEZARRETA

HARATEGIA

Ondo igaro herriko jaietan !

Hipodromo etorbidea 2 • Tel.: 943 361379
LASARTE-ORIA

Gle-ahaindegi mistoa

Lucia

San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuegu !

Kale Nagusia 67
Tel.: 943 371908
LASARTE-ORIA



Zikiro afaria aurten Okendon egingo da 29an 22:00etan. Aurretik 20:00etan Sanpedrotako bertso-saioan lau herritar izango dira. Unai Muñoa gai jartzen, Ane Labaka Otamendi eta Etxeberria bertsoetan.

ne, Buenavista, Telleri, Zubillaga eta Saltzate baserrietako sagardoa banatuko da eta erromeria egongo da.

Ondoren 20:00etan bertsoetaz gozatzeko aukera eskainiko zaie herritarrei.

Sanpedrotako bertso saioan, Kultur Etxean, aurten, herriko hiru bertsolarirekin batera kantatuko dute punta puntako hiru bertsolarik. Gaiak Unai Muñoa jarriko ditu, Andoni Egaña, Maialen

Lujanbio eta Amets Arzallus datoz kanpotik eta Ane Labaka, Andoni Otamendi eta Patxi Etxeberria kantatuko dute. Bertso saio bikaina antolatu du aurten ere Ttakuneko Earra! Bertso eskolak festatan.

Zikiro afaria

Behin bertso saioa amaituta, giroa berriro Okendora itzuliko da, San Pedroetako otodurik estimatuenetarikoa hasiko baita bertan. Zikiro

afaria, aurten Okendo plazan bertan egingo da. Arratsaldeko lehen orduetatik arituko dira sukaldariak zikiroa presatzen gaueko 22:00etarako okela pronto izateko. Txartelak Jalgi tabernan daude salgai 20 eurotan.

Entsalada eta zikiroa egongo da jateko, lagunarte giro alaia, ondoren herriko Itzartu erromeria taldeak girotuko du Okendo eta dantzatzeko aukera izango da.

Kantu Jira

Ttakunen egitarauan azken urtetan ekitaldirik berriena gero eta arrakasta handiagoa izaten ari den kantujira da.

Hilaren 30ean eguerdiko 12:00etan abiatuko da Sagar-dotegi kaletik euskal abestiak kalez kale kantatuko dituen taldea. Xumela abesbatzak eta nahi duten herritarrek parte hartuko dute. Ondoren Amalurreko musikariekin erromeria ere egongo da.

Djak Jalgin

Jalgi kafe-antzokia ere festa giroan murgilduko da egun hauetan eta DJ ezagunek jarriko dute musika bertan.

Hilaren 29an 23:30etatik aurrera Naken Selektor izango da besteak beste ska, rocksteady eta reggae doinuak jartzen eta hilaren 30ean ordu berean, 23:30etan Salda Mr Dubbin besteak beste Saltsa eta Funk doinuak tartekatuz.



Maiatzatik Irailera
gauero* zabalik

Asteko menu berezia
ikusteko:

www.goiegi.com

* igandea eta astelehena ezik

San Pedro jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!

GOIEGI

Jatetxea - Restaurante

Irubide bailara 1 · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

T. 943 36 14 04 / 943 37 11 78





San Pedro jaietarako guztia prest



San Pedro jaiak berrikuntzez beteak datoz. Izan ere, herriaren proposamenak eta ideiak kontuan izan ditu Udalak. Lan honen ondorioz, bihar bi txupinazo izango ditugu. Eguerdian haurren txupina izango da eta arratsaldean, berriz, helduen txanda. San Pedro egunean omenaldia egingo zaie herriko hiru elkarte edo eragileri, Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Jalgune eta Danok-Kide. Honetaz gain, Sorgin Jaiekin elkarlanean Okendo plazan egingo diren kontzertuen egitaraua osatu dute. Haur parkeak, herri-kirolak, haur danborrada, xexenak, musikak... osatzen dute aurtengo jaien egitaraua.

SANCHO TABERNA


San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuegu !

**Kaxuela,
pintxo eta
morunoetan
espezializatua**



**HITZARTUTAKO
eta
TALDEENTZAKO
MENUAK**

**Ogitartekoak
Pintxoak
Plater konbinatuak
Eguneko menua**



Oriamendi enparantza 1 behea · Lasarte-Oria · Tel.: 943 372075

Asteazkena 27

17:00

Sari banaketa Jubilatuen Elkar-teak egindako jarduerengatik eta jarraian luntxa eskeiniko zaie parte hartu dutenei.

22:30

Herriko taldeen Kontzertuak. The Garax, Trikihots, DJ Zebo eta 2012ko V. Maketen lehia- ketako herriko irabazlea Hilotz Okendo Plazan. Sorgin Jaiak antolatua.

Osteguna 28

09:30-12:30

Lasarte-Oriako **koardilen arteko futbola, saski-baloia eta volleyball txapelketako finalak** Loidi-Barrengo pilotalekuan.

12:00

Haur txupinazoa eta pregoia Udaletxetik. Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa abiatuko da, Incansables Txaranga lagundurik.

12:30

BIYAK BAT Jubilatuen Elkar-teko Abesbatzaren emanaldia Manuel Lekuona Kultur-etxean.

13:30

Haurren **kalejira**, Okendotik Atsokarreraino, Incansables Txaranga lagundurik.

14:00

Haurren herri-bazkaria Atsokabarko parkean.

15:00

Bazkalondoan, **uretako jolasak** Atsokabar auzoan.

16:00

Busti Blai jarduera, Atsokabar-ko plazetan barrena.

16:30 - 18:30:

Haur-kuadrillentzako lantegiak



Okendo Plazan, Incansables Txaranga lagun dutela.

17:00

Sorgin-Dantza abiatuko da Oriatik, eta Okendo Plazan bukatuko da.

19:00

Txupinazoa eta pregoia Udaletxeko balkoitik Okendo Plazan.

19:15

Apararren Jaia Okendo Plazan.

20:00

Castells, Villafranca del Penedesko Falcons taldearen emanaldia. Iñigo de Loiolatik abiatu eta kalejira egingo dute, hainbat irudi eginaz Okendo Plazara iritsi bitartean.

23:00

Beteranoen danborrada tradizionala, Oriako Txaranga eta Eibarko Gastadoreak lagun dituztela, herriko kaleetan barrena.

23:00

Kubatik **TROVAHAVANA**ren doinuak Andatza Plazara datozkigu.

23:30

Kontzertuak Zopilotes txirriaos eta Joxpa taldeak Okendo Plazan Sorgin Jaiak-en eskutik.

Ostirala 29 San Pedro eguna

09:00

Amalur Txistulari eskolakoek **Diana** joko dute herriko Kaleetan barrena.

11:00

Pasai txaranga, Erraldoi eta Buruhandiak ibiliko dira herriko kaleetan barrena.

11:00-13:30

Haur parkea Andatza Plazan. Puzgarriak, zezen mekanikoa, abentura-zirkuitua, ura-txalupak, birtual zone PS2 + Wii, Junping eta tailerrak.

11:30

Eskuzko pilota-partidak Jubenilen eta 1. Mailako seniorren kategorietan, Loidi-Barrengo pilotalekua.

12:30

"Grupo de Educación canina Igeldo-ko" **asistentziako txakurren erakustaldia** Okendo Plazan.

12:30

Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Jalgune eta Danok-Kide-ri omenaldia Manuel Lekuona Kultur-etxean.

16:00

Oriako jeitsiera Sorgin Jaiak antolatuta

16:00

Pasaia txaranga ibiliko da herriko kaleetan barrena.

16:30-19:00

Haur parkea Andatza Plazan. Puzgarriak, zezen mekanikoa, abentura-zirkuitua, ura-txalupak, birtual zone PS2 + Wii,

Junping eta tailerrak.

17:00

Haurrentzako xexenak, Saka Ganadu-etxearen Atsokabar auzoan ipinitako zementokian.

18:00

Sagardo-dastatze herrikoa eta erromeria Okendo Plazan.

18:00

Sardina-jate herrikoa Okendo Plazan, Aterparen eskutik.

20:00

Berto-festa Manuel Lekuona Kultur-etxean, parte-hartzaile hauekin:

Gai-jartzailea: Unai Muña

Bertsolariak:

Maialen Lujanbio
Andoni Egaña
Amets Arzallus
Patxi Etxeberria
Andoni Otamendi
Ane Labaka

20:00-22:00

Herriko Beat disko-jartzaileekin saio-majikoa Isla Plazan.

20:00

Antzerki-Zirkua. Zirkuko ikuskizun dinamikoa Kale Nagusian: Trapezioa, bizikleta txikiak, akrobatak eta umorea.

22:00

Zikiro-afari tradizionala eta segidan **Itzartu taldearekin erromeria** Okendo Plazan. Eta ondoren **Karaokea**.

23:00

Dantzakiak Rubi Berriak taldearen eskutik Isla Plazan.

23:30

Txarantukkada Masaranduba. Txaranga eta Batukadaren arteko konbinazioak herriko kaleak girotuko ditu.

IRABAZI AFARI BAT ZURE KUADRILLARENTZAT

Sagardoarekin lotutako hitz, esamolde edota esaldiak biltzen ari gara. Inoiz entzunak, zein asmatuak.

Bidali nahi adina proposamen: lehiaketa@sagardogorenak.com
#gorenak

SARIA: 8 lagunentzako afaria GORENAK taldeko zuk nahi duzun sagardotegian.

Epea: Uztailaren 5a baino lehen. (Uztailaren 8ko Berria jakingo da irabazlea).

Epaimahaia: Joxerra Garzia, Arantxa Iturbe eta Xabier Paya.



ALORRENTA ALIZETA XURRAIZTEGI BEGIRISTAIN EGILOZI GARTZIATEGI GAZTANAGA GURUTZETA HASTEGI OLATZIO SAGARZIA ZANIKAN

WWW.SAGARDOGORENAK.COM



GORENAK
FESTIVAL HERRIKO SAGARDO GORENAK

OINAK LURREAN TINKO, KALITATEZ ETA INDARREZ, DENAK NORABIDE BEREAN TIRAKA, NAGUSI IZATEN JARRAITZEKO.

HORREGATIK DARAMAGU SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOAREN TXAPEL BELTZA.

Larunbata 30

11:00 - 13:30

Oriako Txaranga, **Erraldoi eta Buruhandiak** ibiliko dira herriko kaleetan barrena.

11:00 - 13:00

Amalur Txarangak Herriko kaleak girotuko ditu.

11:00 - 13:30

Haur-parkea Isla Plazan. Golf-zelaia birziklatua, bateatzeko kaiola, Semway-ko zirku-tua, Crazy bikes, Ludoteka, Puzgarriak, Kiner dantza eta Guitar Hero. 4tik 14ra bitarteko neska-mutilentzat.

12:00

Kantujira herriko kaleetan barrena.

12:30

Emakumeen herri-kirolak. Generoaren ikuspuntutik. Berdintasunaren alde Okendo Plazan. Sokatira, Trontza, Txinga ...

13:00

Paella dastaketa Elizatze Plazan, Azken Muga tabernaren eskutik.

16:00 - 20:00

Olinpiadak/Haurjokuak. 13tik 18ra bitarteko gazteentzat ekintzak Kale Nagusian. Looping-bike, giza-futbolina, sas-kibaloia, ski, arraunak...

16:30 - 19:00

Haur-parkea Isla Plazan. Golf-zelaia birziklatua, bateatzeko kaiola, Semway-ko zirku-tua, Crazy bikes, Ludoteka, Puzgarriak, Kiner dantza eta Guitar Hero. 4tik 14ra bitarteko neska-mutilentzat.

17:00

Haurrentzako xexenak, Saka Ganadu-etxearenak Atsabakar auzoan ipinitako zentotokian.

17:30

Oriako Txaranga, **Erraldoi eta Buruhandiak** ibiliko dira herriko kaleetan barrena.

18:00

DINBI BANDA. Herriko batukadak giroa berotuko du.



Oharrak

Aldez aurreko salmenta, ekainaren 18tik aurrera, 18:00etatik 21:00etara bitartean, Manuel Lekuona Kultur-etxean:

Bertsolariak Leihatilan 4,20 euro
Internet bidez 4 euro

Gomendioak:

- 1.- Udalak berretzat erreserbatzen du programatutako ekitaldiaren bat ezinbesteko kausengatik aldatzeko, kentzeko edo bertan behera uzteko eskubidea.
- 2.- Pertsona guztiei arren eskatzen zaie kasu egin diezaietela Udaleko enpleguagandik edo agintaritzako agenteagandik jaso ditzaketan agindu partikularrei, eta, bestalde,

ez ditzatela oztopa DYaren lanak, festetan interbenitu beharrean gertatuz gero.

- 3.- Parte hartu, ondo pasatu, baina kontuan izan besteenganako errespetua.
- 4.- Errespetatu kaleko altzariak, lorategiak, kaleplazak, etab., lasarteoriatar guztien eta zerorren onerako.
- 5.- Ez oztopatu ez garbiketako lanak, ez zerbitzu municipalenak; kontuan izan zenbaitek lan egingo dutela, gainerakook festetan ondo pasa dezagun.
- 6.- Debekatuta dago petardoak, suziriak edo antzekoak saltzea.
- 7.- Gogorarazten da debekatuta dagoela 18 urtetik beherakoei alkohola saltzea.
- 8.- Edaten baduzu, ez ezazu gidatu.

19:00

Tolosako dultzaineroak.

Manuel Lekuona kultur-etxean.

Azken ikuskizuna aurkeztuko dute, **XERETA**, Iparraldeko izen bereko haraneko artzain gazte baten bizitza kontatzen diguna Euskal Herriko dantzen eta musikaren bidez.

dearen eskutik Andatza Plazan.

20:00

Trapu Zaharren eskutik Ametsetan bizi **umore-antzerkia** Elizatze Plazan.

23:00

We are Standar + Bongo Botraco taldeen kontzertua. Talde-aldaketan, FÚNEBRES taldea arituko da. Beste mundutik etorritako hilotzak, suak, bengalak eta petardoak Lasarte-Oriako kaleetan.

20:30

Gero Axular dantza talde

23:00

Dantzakiak IBAI BERRIAK tal-

Igandea 01

07:00

Saka ganadu-etxearen **xexenak**, Atsabakar auzoan ipinitako zentotokian.

10:00 - 12:00

Bola Jokoa Herriko bolatokiaren.

11:30

Haurren Danborrada Tradizionala, Oriako Txaranga lagun duela, herriko kaleetan barrena ibiliko da.

12:00 - 14:00

Herriko toka lehiaketa Okendo Plazan.

13:00

Uharte Zanpanzar. Nafarroako tradizioaz murgildutako taldea gure artean izango dugu.

18:00

Monsters Show haurrentzako antzerkia. Panta Rhei antzerki taldearen eskutik haurrentzako txontxongiloak Isla Plazan.

18:00 - 20:00

Toka erakustaldia. Euskadiko 4 tokalari onenen erakustaldia Okendo Plazan.

19:00

Amaruko Goxokiak Trikitixa taldea Andatza Plazan.

20:00

Amaia Zubiriaren kontzertua Andatza Plazan.

20:30 - 22:30

Herriko taldeen kontzertua DRACKEN eta TamerlayN taldeak Okendo Plazan.

23:00

Su-Festa. Su artifizialen bilduma bat botako du Astondoa Piroteknia famatuak Atsabakarko parketik.

23:00

GOSE Taldearen kontzertua Okendo Plazan eta jarraian **DJ BULL.**

00:00

Zezen Suzkoarekin entzierroa Kale Nagusian barrena.



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

*Gustuko al duzu abestea?
Zatoz gure artera!*



ALBOKA



**ABESBATZA
LASARTE-ORIA**

TEL.: 943 365145 / 943 363656 · LASARTE-ORIA

Okendo taupaka jarriko dute

Sorgin Jaiek gaur arratsaldean Okendo plazan emango diete hasiera San Pedro jaiei. Kokaleku berrian, herriko bihotzean, jai gazteagoak antolatu dituzte. Kontzertuak, Oriako jaitsiera, eskalada txapelketa, bertsolariak, haurren danborrada, bakailao txapelketa bazkari eta afariak, denetarik egongo da bost egun hauetan Sorgin gunean. Azpimarratzekoa gaur 19:00etan jaurtiko duten txupina eta jaiei amaiera emango dien antzerki-akelarrea. Sorgin Jaietako batzordeak herritarrak animatzen ditu jaietan parte hartzera, "herritarrek koloreztatzekeo jaiak" baitira.



Asteazkena 27

Pijama eguna

16:00
Koadrilen jaitsiera, Andatza plazatik Sorgin Jaien gunera.

19:00
Antzerkia, txupinazoa eta brindixa.

21:00
Kostila jana eta sagardo edatea

22:30
Herriko taldeen kontzertuak:

The garax
Hilotz
Trikihots
DJ Zebo



Osteguna 28

Kuadrilen eguna

17:00
Lokal poteoa Dinbi-banda batukadak girotua

21:00
Kuadrilen afaria, Karpan

23:30
Kontzertuak:
Zopilotes Txirriaos eta Joxpa

Ostirala 29

Kutre eguna

7:00
Gosaria

8:00
Esnadeia

autobusen
TST
zerbitzua

tsst

Oso ondo pasa herriko jaietan!



Gure herriko autobusak

Azkarra, segurua eta eroso

Tel.: 943 361740 • www.tsst.info



11:00
Artisau azoka

16:00
Oriako Jaitsiera

17:30
Eskalada txapelketa

22:00
Zikiro afaria

23:30
Erromeria.

Ondoren, Karaokea.

Ondoren, poteo girotua.

3:00etatik aurrera,
jolasak eta Djak karpan

Igandea 1

Umeen eguna

11:00
Bakailao txapelketa eta txakolin dastaketa

14:00
Bazkariak. Helduen bakailaoa jana eta umeen bazkaria.

15:00
Umeen jolasak

16:30
Mus eta eskoba txapelketak Karpan

17:00
Umeen danborrada

22:00
Jaiei bukaera emateko antzerki-akelarrea

Gaua amaitzean globo gerra

Larunbata 30

Gazte eguna

12:30
Herri gonbidatuei triki-ber-tso harrera

13:00
Segurakoen dantza saioa

14:00
Gazte bazkaria eta bertso-lariak Okendo plazan

17:00
Olinpiadak karpan



Oharrak

Asteazkena 27

- Antzerkia amaitu bitartean isiltasuna eskatuko da
- Kostila jana eta sagardo edateko txartelak jarriko dira txosnan salgai

Osteguna 28

- Kuadrilen afariko txartelak, Artizar, Jalgi eta Trumoi tabernetan jarriko dira salgai

Ostirala 29

- Artisau azoka egun osoan izango da
- Oriako jaitsieran erabiltzen den materiala, ibaitik atera beharko da amaitutakoan
- Karaokean izena ematea oholtzan bertan izango da. Txandak errespetatu mesedez
- Zikiro afariko txartelak Jalgi tabernan daude salgai.

Larunbata 30

- Gazte bazkarirako txartelak Xirimirin eta Artizar tabernan egongo dira salgai

Igandea 1

- Bakailao txapelketan izena eman edo informazioa jasotzeko sorgin-jaiak@gmail.com helbidera idatzi, izen abizenak eta hurremanetarako telefonoa-ekin
- Bazkarirako txartelak Gure Etxea tabernan salgai
- Umeek haien bazkaria eraman beharko dute



MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

*IBILGAILUAK MOTOZIKLETAK AUTOMOBILAK AUTOKARABANAK FURGONETAK KAMIOIAK... *MERKATARITZA	*BIZITZA ETA ERRETIROAK *OSASUNA *ISTRIPUAK ETA GAIXOTASUNAK *ERANTZUKIZUN ZIBILA	*ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK *INBERTSIOAK *PYMEAK...
--	--	---

Ganbo Kalea | LASARTE-ORIA Tel.: 943 363449 & Faxe: 943 372413



ondo igaro
San Pedro jaietan!

Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362275 & Faxe: 943 372413

Oso ondo pasa herriko jaietan ! 

Riojanos

Erretegia

Afariak, bazkariak, pintxoak, ...



Uistin kalea 13 • Tel.: 943 362720 • LASARTE-ORIA

San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuegu !



Antonio Benito

Erregistratzeko kutxak eta pantaila taktila dutenak

Aralar plaza 1, behea
Tel.: 943 371313
20160 LASARTE-ORIA



MANOLI estankoa

San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuegu ! 

Geltoki 15 • Tel.: 943 362492 • LASARTE-ORIA

Oso ondo pasa San Pedroetan ! 



MARIA LUISA

ILEAPAINDEGI MIXTOA

Pablo Mutiozabal 9 behea
Tel.: 943 370980

Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Ondo pasa San Pedroetan ! 

MAITE

ESTETIKAKOARETOA

Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Garmendia

OIALAK

Ondo pasa San Pedroetan ! 

Uistin kalea 11
Tel.: 943 376947
20160 LASARTE-ORIA



YOLANDA TABERNA

Janariak ematen ditugu: astebukaerako menua, bokatak, sandwichak, plater konbinatuak, ...

Oso ondo pasa festetan ! 



Pintore 1 • Lasarte-Oria
Tel.: 943 110957

Maite Erkizia

ILE-APAINDEGIA ESTETIKA

Oso ondo pasa festetan ! 

Blas de Lezo 5, behea
Tel.: 943 370254
LASARTE-ORIA



- | Eguneko menua
- | Asteburuetako menua
- | Tradiziozko sukaldaritza
- | Etxeko postreak



Larre

Jai alaiak opa dizkizuegu ! 

Larrekoetxe bidea 10 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361012 / 943 360480

Utsla

MEKANIKAKO ZERBITZU OROKORRA

Garajea 

San Pedro jai onak pasa ! 

Jaizkibel plaza 2, behea • Tel.: 943 370203 • LASARTE-ORIA

Herriaren izenaren erabilpena hizpide

Sebastian Kerejetaren iritziz hamarretik bederatziz herritarrek, zoritxarrez, Oria, zeharo lur jota ezagutu dute eta hainbatek ez dute aintzakotzat hartzen

Herria sortu eta Lasarte-Oria izena hartu zuenetik mende laurdena igaro denean, hainbat herritarrek ez du oraindik izena aintzat hartzen eta izen osoa erabiltzen, Sebastian Kerejeta, Ttakuneko sortzaile eta lehendakari ohiaren iritziz. Oria auzoan sortu zen bera eta auzo honek aurreko bi mendeetan izan zuen garrantzia kontatzen du artikulu honetan, horretako zenbait liburueta datuak eta bere bizi-penak erabiliz.

Sebastian KEREJETA

Oria eta Lasarte, bi auzoek adostu ondoren, mende laurden bat igaro da, eta oraindik, hainbat eta hainbat lasarte-riatarrek ez dute aintzat hartzen, eta hainbatek ez du onartzen gure herriaren izena Lasarte-Oria denik. Urteetan zehar, behin ere izena osorik esan gabekoak ere asko izango dira. Zenbaitentzat ez da oker larria izango, -herritarren arteko harreman ona da premia-koena- baina bitxia dela ezin ukatu, eta horregatik aipatzen dut.

Erdia esanda ere ulertzen da noski, baina, gure herria denez, guk herritarrok behintzat, zergatik ez izena osorik erabili? Hizketan ari garenean esaldia laburtze aldera egiten dugu, baina idatzita ikusten dudanean harrizten nau; asko

dira, zigilu, fakturen goi-idazki, karta-azal eta eskeletan edo dataren aurretik idazten dutenean, gure herriaren izenaren erdia idazten dutenak batere axolarik gabe. Herrian bizi edo negozioa herrian eduki, eta herriaren izena ez jakitea edo gaizki idaztea gure herriari eta hainbat herritarrei iraina eta mespretxua egitea delakoan nago.

Nire iritziz, gure herriari izena jartzeko garaian erabaki egokia, zuzena eta bidezkoa hartu zutela aitortzen dut, alegia Lasarte-Oria.

Behar bada, askoren akatsa edo aitzakia, gure herriaren kondaira eta iragana ez jakitea izango da eta argitze aldera saiatuko naiz, ondoren, labor bada ere, azaltzen.

Lasarteko berri, aintzinako denboretatik, Erdi Arotik, jasota ageri da hainbat idatzitan eta betidanik izan du nor-



Brunet familiak XIX. mendean zabaldu zuen ehun fabrikak bultzada handia eman zion Oria auzoari.

tasun eta errekonozimendu nabarmena, eta, nahiz auzo bat izan, herri askok baino ospe eta ezaguera handiagoa izan du mendeetan zehar, gainera, zalantzarik gabe, merezimendu osoz.

Bestalde, Oria, XIX. mendearen erdialdean nabarmen-tzen da, auzo, hiri edo herri bezala; alegia, kale-etxe, fabrika eta hainbat osagarriz

hornituta; halaber, 650 bizilagunetik gora izatera iritsi zen garai haietan eta horrela mantendu zen urteetan zehar, nahiz, esan behar, aurretik ere, hamar baserri bazeudela Oriako lur-sailetan landa-lur bikainekin, auzo bat osatuaz.

Aipatutako hamarkada honetan, Brunet-tarren, sendi edo familia, Kataluniar jatorria zuena, Donostian finkatuta zegoen, era berean hainbat negoziotan parte hartuaz; bertako alkate ere izan ziren, bai aita eta baita semea ere.

Bere grina edo izaerari jarraipena emanaz, Oriako, Oria-haundi eta Oria-txiki baserriak eta bere lur-sailak jabetu ondoren bertan hasi ziren, gogo-biziz, proiektu berri bati gorpuzt ematen.

Bai lortu ere. Urte gutxian zeharo aldatu zen Oria eta Lasarteko inguru.

Punta puntako lantegi eta langileentzako etxeak eta behar ziren ekipamenduak eraiki, eta inguru-gunea antolatatu ondoren, 1848an ekin zioten, buru-belarri, lantoki berriari, kotoia landu eta oihalak ekoizten. 650 langiletik gora izatera iritsi ziren lantoki honetan eta Oria eta Lasarteko hainbat eta hainbat herritarrentzat ogibide izan zen.

Garai hartan estatu mailan zen hari eta oihal enpresa edo lantokirik handiena, egokiena, aurreratua eta inportanteena altxa zuten Orian, esan bezala, etxe-bizitza eta ekipamendu oso duinez osatuta.

Hainbat herritarrek ez dute onartzen gure herriaren izena Lasarte-Oria denik. Asko izango dira behin ere izena osorik esan gabekoak.



ALTZARIAK ONAK ETA MERKEAK

Ondo pasa
San Pedro jaietan !

IZARI-BI

Oria etorbidea 3
Brunet polig., 42.
pab.
Tel./faxa: 943 360496
LASARTE-ORIA

DISFRUTATU SAN PEDRO JAIETAN!



I. GURRUZOLA ABOZTEGIA

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.



Oria etorbidea 4, behea
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371200 / 610 413131
LASARTE-ORIA

Brunet sendikoek ibai bazterretik Andoainera errepide on bat ireki eta N-1 errepidearen ibilbide zaharra aldatzea lortu zuten.

Gipuzkoako lurralde guztian, Donostia barne, Oria izan zen lehendabizikoa kaleak argizatzen. Etxe guztietako sotoaren sarreran bonbilla bat zegoen kalera begira.

Madril-Paris errepidea

Nahiz, gaur, harrigarri egiten zaigun, garai haietan, duela 170 urte, Oria eta Lasartetik Andoainera atze-aurrera egiteko, gurdi-bide ziztrin bat besterik ez zegoen, alegia, idi eta gurdiairekin edo astoarekin egiten ziren Andoain eta gure herri arteko garraioak, edo bestela oinez.

Bitartean, Madrildik Parisera errepidea, -errege-bidea edo N-1a-, Andoaindik, Urnieta, Hernani, Astigarra, eta Oartzundik barrena iristen zen Irunera.

Gauzak horrela, Oriako Brunet-tarrak, gauzak alde aurretik ikusita, erabaki garrantzitsu bat hartu zuten: Oriatik Andoainera, ibai bazterretik, errepide bikain bat irekitzea, alegia, errege-bide edo N-1 errepidearekin lotura zuzena lortzeko; behar zituzten kidetza eta laguntzen ondorioz, bai gauzatu ere. Ez zen txantxetako lana izango garai haietan!

Horrekin ez nonbait ase, eta, berehala, lehen aipatutako N-1 errepidea, ohiko bidez aldatu eta gure herritik barrena pasatzeko saiakerari ekin zioten. Hori ere, epe labur batean lortu zuten.

Gaur egun, zalantzan jarriko litzateke, noski, lorpen honen onura bainan, garai haietan izugarriko lorpena izan zen.

Horren adibide da, lehen aipatutako herri horiek, haserre bizian, epaitegiara amorratuz jo zutela erabaki aldazterik lortu. Orduan ere, errepideak hizpide eta liskar!

Oriak eta Lasartek, errepide honen bitartez munduan zehar bere burua azaltzeko aukera izan zuten. Oriatarrek egindako ekintza honek, garai hartan, onura eta eragin izugarria izan zuen Orian eta Lasarten, geroago ikusi ahal izan zenez.

Kultura eta ohitura zaharrak

Oriako izaeraren gaiarekin jarraituz, European zen fabrikari aurreratuenetako bat eta lehen mailako errepide bat



Inguruko musika bandarik bikainena zen Oriakoa. Irudia, 1875eko argazki zahar baten parte da.

bertain izateaz gain, oriatarrak, kultura eta bertako ohiturak txertatu eta mantentzen saiatu ziren, eta bai lortu ere.

Batzuek aipatze aldera, esan, inguru hauetako musika banda bikainena zegoela

Orian, bertako bizilagunekin osatuta. Herriz herri jendea alaitu eta Oriaren izena harro erabili zuten urteetan zehar (gure aita zenak musikari guztien izenak ederki zekizkien; oraingo zenbait futbol taldeko

jokalariak bezain ospetsuak ziren inguru hauetan).

Gogoan dut, 1948. urtean, fabrikaren mendeurrena ospatu zenean, oraindik ere, hainbat gazte, jasota zeuden musika tresna haietakoak hartuta, arbasoen irudia oroituz, txantxetan, hotsa atereaz, nola ibili ziren musika banda irudikatuz kalejiran Oriako kalean.

Sorgin dantza

Oriako Sorgin-dantza ospetsua, gure herriaren ondare kultural preziatua dena, XIX. mendetik dantzatu dute oriatarrek, eta geroztik belaunaldi belaunaldi bizirik eta tinko mantendu da Orian dantza ikusgarri eta maitagarri hau. Liburu bikaina ere bada- go oriatarrok argitaratuta. Gaur egun, ehunka herritar dira dantzatzeko gai, eta gure herriaren ezaugarrietako bat da.



Txartel sagardotegiaren inguruan zuen helmuga automobil zirkuito famatuak.

European zen fabrikari aurreratuenetako eta lehen mailako errepidea izateaz gain bertako kultura eta ohiturei eutsi diete oriatarrek



SEBASTIAN KEREJETAk idatzi du Oriari buruzko artikulua. Autoreak berak argitu duenez, batez ere Antxon Aguirre Sorondok, eta Jose Mari Bardajik, Oria eta Lasarteko berri emanez idatzitako liburuetatik jasotako bitxikeriak dira, artikulua osatzeko Oriako Sorgin-dantza liburukoak eta Sebastian Kerejeta beraren bizipenak ere jaso ditu. "Neronek bizitu ditudanak ere" ageri dira idatzian.



ETXARRI DIGITAL

943361484 Nagusia 17 LASARTE-ORIA


KIOSKO DIGITALA

SAN PEDRO JAIAK 2012

ERREBELATU DIGITALEKO MAKINA BERRIA




Errebelatu DIGITALA ORDU ERDIAN
KARRETEEN errebelatua
EZKONTZETAKO erreportajeak
ESTUDIOKO erreportajeak
makina DIGITALAK
30X90 neurrirainoko ANPLIAZIO DIGITALAK
Markoak jartzeko tailerra
Opari pertsonalizatuak



Oriate auzoaren eta Brunet Fabrikaren ikuspegia ageri da argazki zahar honetan. 1848. urtean fabrika eraiki eta urte gutxian zeharo aldatu zen ingurua,

Plazido Mujika Berraondo, euskal kulturako goimailako gizon hau, Oriate sortua da. 1906ko apirilaren 16an Oriateko Baratzalde etxean jaio zen.

Lehen euskal hiztegia

Berak idatzi zuen Euskara-Gaztelera eta Gaztelera-Euskara lehenabiziko hiztegia. Buru-belarri urteetan lanean jo eta ke aritu ondoren, 1964. urtean argitaratu zuen gure hizkuntzarentzat eta Euskal Herriarentzat hain garrantzitsua izan zen idazlan miresgarria, geroago, garai berrietara egokituta aterako zirenen hiztegien oinarri eta aitzindari izan zena. Horrez gain hainbat liburu eta itzul-tze lan egina zen oriatar jator, langile eta jakintsua hau.

Emakumez osatutako abesbatza bikaina ere ezagutu nuen Oriate.

Kirol mailan, puntako pelotari, futbolari, txirrindulari eta korrikalari sortu ziren Oriate; estatu mailan nabarmendu zirenak eta txapelak ekarritakoak ere baziren.

Bi ikastetxe, eta frontoi ederra ere baziren Oriate; Atano III., txapeldun handia ere, izan zen Oriateko Plaza Berria frontoian jokatzen lasarte-oriatarrak aurka zituela.

Plazido Mujika Berraondo lehen euskal hiztegiaren egilea Oriate sortu zen 1906ko apirilaren 16an Baratzalde etxean

Jarraitu nezake hainbat eta hainbat aipamen azaltzen, baina, bukatze aldera, esan, Oriate zeudela Gipuzkoako sagastirik ederrenetakoak, eta baita Euskal Herriko sagardotegirik bikainena, handiena eta dotoreena ere, 45 upel ikusgarriekin osatua, bolatoki ederra eta toka-lekua aurreko aldean zituela, urteetan zehar eskualdeko hainbat eta hain-

batentzat topaleku atsegina izan zena.

Automobil lasterketa ospetsuak ere, nahiz Lasarteko izena eraman, Oriate irten eta Oriate zuten helmuga eta bertan zituzten, baita ere, tribunak eta bulegoak. Antolatzailerik, epaile, agintari eta Alfonso XIII., erregeak ere, lasterketak ikusi ondoren, Oriate, Jose Kerejetaren okin-

degiko etxean, bazkaldu ohi zuten, etxera abiatu aurretik.

Gauza bera esan daiteke, 1965ko munduko txirrindulari txapelketa aipatzerakoan ere, Oriate izan zen topaleku eta antolaketa eta ospakizun guztiaren ardatz.

Oriatarren izpiritua

Amaitzeko, azpimarratzekoa da oriatarrek betidanik izan duten izpiritu liberal eta aurrerakoa, hurrengo langile belaunaldiari ere bidea zabalatzeko balio izan zuena; horren adibide, garai haietan aitzindari zen sindikatuaren egoitza, Braulia-enea etxean zabaldu zuten. Gizarte mai-

lan, oriatarrek bizi izan zuten bizikidetasunaren maila eredugarria zen.

Gaur, Lasarte-Oriate bizi diren hamarretik bederatzik herriarrek, Oriate, zoritxarrez, zeharo lur jota ezagutu dute, eta, hainbatek, gure herriaren historia ez dakitenez, hasieran esan dudan bezala, Oriate eta gure herriaren izena, Lasarte-Oriate izena alegia, aintzakotzat ez dute hartzen.

Ea ba, gure herriko berri, pixkat gehiago ezagututa, behingoz, hainbat herriarrei iritzia aldatzen zaie eta, gu guztion herriaren izena, osorik, harro ibiltzeko denok gai garen. Hala bedi



Sorgin-dantza, XIX. mendetik dantzatu dute oriatarrek, belaunaldiz belaunaldi eutsi diote ohiturari bizirik. Ezkerreko argazkia 1919koa da, eskumakoa 1948koa.



San Pedro jai zorionsuak opa dizkizuegu !



IRIGOYEN
OPTIKA



Largoenea I , Tel.: 943 371047
Lasarte-Oriate

San Joan bezperako sua, desfilea eta zortzikoa Okendon egin ziren berriz ere

Udal ordezkariak eta Juan Luis Murua apaiza aritu ziren soka-dantza dantzatzen

Gau magikoa omen da San Joan bezperako gaua, orotz zuzen txarrak erraustu eta horiek ahazteko gaua hain zuzen. Horretarako, Euskal Herriko bazter guztietan bezala, Lasarte-Oria ere ohitura den legez San Joan Sua piztu zuten. Bigarren urtez egin zuten sua jendez gainezka zegoen Okendo plaza eraberrituan, eta ez zen sorpresarik falta izan. Besteak beste, Pablo Barrio, Taxio Arrizabalaga, Estitxu Alkorta, Ana Isabel Prieto udal ordezkariak eta Juan Luis Murua apaiza soka-dantzan aritu baitziren. Horretaz gain, Erketz EDTkoek ere urtero bezala ez zuten egun honetan hutsik egin eta euren lan ona jarri nahi izan zuten San Joan bezperako sua girotzeko.

Jende guztia sua noiz piztuko zain egoten da San Joan bezperan, atzean utzi nahi duten hori erre asmoz eta errautsetatik egoera eta ilusio berriak sortuko zaizkiela sinetsi nahiean.

Hala, esperotako sua piztu baino lehen, Erketz EDT-ko lagunek San Joan zortzikoa dantzatu zuten udaletxe parean.

Handik, Udalbatzarreko zinegotziekin batera, Okendo plazarinoko bide laburra egin zuten herriko dantzariak.

Plaza, ikusgarri

Plaza goraino bete zuten lasarteoiatarak Pablo Barrio alkateak sua noiz piztuko zain zeuden bitartean, dantzariak agurra eta soka-dantza dantzatu zituzten suaren inguruan eta Taxio Arrizabalaga zein Pablo Barriok bakarka egin zituzten dantzek txalo zaparrada handia jaso zuten ikusleen aldetik.

Behin alkateak zuzi batekin San Joan sua piztuta, sua-

ren inguruan kalejira, fandangoa eta arin-arina dantzatu zituzten udal ordezkari, herritar eta Erketz EDTko dantzariak, denek batera.

Aurpegi ezagunak

Aurrez aipatu bezala, aurtengoan aurpegi ezagun askoak aritu ziren soka-dantzan. Bilduko Pablo Barrio alkatea eta Taxio Arrizabalaga, EAJ-ko Estitxu Alkorta, Herritarren Plataformako Ana Isabel Prieto eta Arantzazuko Amabirjina elizako parroko den Juan Luis Murua, besteak beste.

Udal-korporatibako Alaitz Mendizabal (Bildu), Boris Nogales (EAJ) eta Juan José Castro (Herritarren Plataforma) ere izan ziren dantzarien lana ikusi eta txalotzen.

Orokorki hartuta, ikuskizun polita eskaini zuten dantzari guztiek eta su erraldoiak pasa den ikasturteko apunte, bizi-zen txar eta ilusio galduak erre zituen, berriei leku egiteko.



Itxura hauxe zuen San Joan bezperako suak Pablo Barrio alkateak piztu eta minutu gutxira.



Suaren aurrean soka-dantza dantzatu zuten Udal ordezkariak, Juan Luis Murua apaiza eta Erketz EDTko dantzariak.

Herritar ugari bertaratu zen Okendora zortzikoa, desfilea eta sua ikustera, San Joan bezpera ederrean

Oso ondo pasa San Pedroan !



Bideo Lagunak

**Telebista bat erosteagatik,
100 euro arteko deskontu txartela eskuragarri
Uztailaren 1etik 7ra bitartean**

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

David de Jorge Sukaldaria

“Festetan onena, lapikoan, litroka egindako etxeko gin tonica da”

David de Jorge sukaldariak, ETB2ko “Robin Food” saioagatik egin da ezagun, hau Martin Berasategiren jatetxean kokatuta dagoen platoan egiten du egunero

Hondarribiarra jaiotzez telebistari esker famatu egin den sukaldari honek bere bizitza erdia Lasarte-Orian eman du. 21 urterekin Martin Berasategiren sukaldetan hasi zen lanean eta egun jatetxearen ondoan kokatutako telebista platoan sukaldatzen ditu bere errezeta goxoenak. ETB2ko “Robin Food atracán a mano armada” saioak arrakasta handia izan du eta honen sekretua zein den galdetu nahi izan diogu. Horretaz gain festetarako hainbat gomendio eman dizkigu sukaldariak.

Maider AZURMENDI

David de Jorge sukaldariak ikusleak liluratu ditu. Sukaldean aritzeko modu desberdin bat eraman du telebistara eta honek bere izateko moduarekin batera, jarraitzaile mordoa izatea eragin du. Askotan aipatu arren, saioa Lasarte-Orian grabatzen da eta herriarekin saioak baita berak duen lotura azaldu digu.

Egun telebistan hainbeste irauteak badu meritua. Zein da sekretua?

500 saio baino gehiago egin ditugu. Hasieran ez genuen uste hainbeste denbora iraungo zuenik baina telebistan jarraitzen dugu eta horretarako arrazoiaren bat egongo da. Sekretua zein den ez dakit, suposatzen dut jendeak ondo pasatzen duela saioa ikusten.

Egun ikusleak oso selektiboak dira eta soilik gustatzen zaiena jarraitzen dute telebistan. Gure kasuan, mezu positiboak bidaltzen saiatzen gara beti sukaldetik eta hori momentu honetan bereziki ikusleek eskertzen dutela iruditzen zait.

Jendeak behar al ditu mezu baikorrak?

Nik uste dut jendeak ilusioa behar duela berreskuratu. Adibide oso ona izan da Athleticekin gertatutakoa. Bi finaletan izan da futbol taldea eta ikusita honek jendearen artean piztu duen ilusioa eta gogoia nik ere, futbola ez dut atsegin, Bilboko taldea saiotik animatu izan dut. Egia da jendea nazkatuta dagoela, albiste txarrak besterik ez dira ikusten eta horri buelta eman behar zaio.

Saioa Lasarte-Orian egiten da, Martin Berasategiren sukaldetik pausu gutxira. Horrek eragina badu?

Eragin handia bai. Dena den, azpimarratu nahiko nuke Lasarte-Orian ia bizitza erdia eman dudala. Denek dakiten moduan Hondarribikoa naiz eta han bizi naiz baina 21 urterekin etorri nintzen Martinen sukaldera lan egitera eta gaur arte hemendik gabiltza lanean. Herri honekin lotura berezia daukat, hemen pasatzen ditut nire etxean baino ordu gehiago.



Bere saioa sukaldean etxean bezala sentitzen da David de Jorge, Martin Berasategiren sukaldetik oso gertu.

Etxean bezala sentitzen naiz sukalde honetan eta etxean bezala sukaldatzen dut, ikusleak eguerdiko nire sukaldearen intimitatean sartzen dira

Munduko jatetxerik hobereenetako bat gure sukaldaritzako saioa grabatzen dugun lekutik hain gertu egotea izugarria da. Kontutan izan behar da sukalde horretan mundu mailako profesional handiak dardelana lanean, ikasten. Talde horrek laguntzen digu eta energia asko dago horren inguruan. Hori nabaritzen da

saioan, benetakoa da sukaldeko maite dugula eta gure ikusleek nabaritzen dute maiztasun eta gogo hau.

Telebistan sukaldatzea gustatzen al zaizu?

Martin Berasategi betidanik nigan konfiantza azaldu du eta ni telebistan egotearen erruduna bera da. Berak tele-

bista saioa proposatu zuen momentutik ni aurkezle nahi ninduen.

Nik zalantza asko nituen eta bere laguntzaz gain, bere babesa ere izan dut ibilbide guztian. Egia esan oso gustutara nago egiten dugun lanarekin.

Dagoeneko programa asko dira, errezeta asko... berritza zaila al da?

Sukaldaritzako saio bat egitea zaila da. Atal bakoitzak preskakuntza handia du. Funtsezkoa da plangintza on bat egitea, gidoia lantzea... baina errezetak asko dira eta bada-goa aukera zabalak.



Oso ondo pasa herriko jaietan !

TRUMOI TABERNA

Hipodromo etorbidea 3 • Lasarte-Oria



Juan Mari HARATEGI-URDAITEGI

Giokela

Ondo pasa festetan !

Jaizkibel plaza 11 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 365156

Saiatzen naiz errezeta desberdin asko egiten, nire ustez badaude jendeak prestatzen jakin beharreko platerak eta horiek egiten saiatzen naiz. Horieta gain, egia da tarteka gustatzen zaidala errezeta berezi bat edo beste egitea.

Beti oso kontutan izaten ditut nire ikusle eta jarraitzaileak horregatik plater onak eta sinpleak egiten saiatzen naiz, produktu arraroak ez ditut erabiltzen ezta sukaldereko gailu berezirik ere ez.

Asko kritikatu zaizu behatza sartu eta janaria probatzairena...

Bai egia da asko komentatu dela baina nik uste dut azkenean jendeari hau gustatzen zaiola gehien. Ez benetan, ni etxean bezala sentitzen naiz sukalde honetan eta etxean bezala sukaldatzen dut, ikusleak eguerdiko nire sukaldearen intimitatean sartzen dira.

Oinarritzokoa da sukaldari batek bere janaria ona edo txarra dagoela inork baino lehenago probatzea...

Betiko galdera, saioa grabatu ostean dena jaten al duzue?

Bai lan taldeak jaten du dena eta berdin zaie zein ordu den!

Aipatzen den beste kontu bat izaten da ez duzula dieta errezetak egiten...

Hori ez da egia. Nik prestatzen ditudan platerak oso orekatuak dira. Egia da tarteka aste osoak eskaini izan dizkiogula neguan batez ere,

gisatuei, ia egunero bat eta horrek janari askoren sententzia eragiten du baina nire errezetekin dieta egitea posible da. Jendearen esku dago kantitateak neurtu eta dieta orekatu bat mantentzea.

Sopa hotzak, entsaladak, edariak, nik egiten dudanekin zaindu nahi duenak egin dezake. Oso kontutan izaten dut oreka hori, jendea gauza goxoak egitea gustatzen zaie, mikroarekin sukaldatzea, kontserbekin plater goxoak prestatzea posible dela erakustea...

Etxeko ekonomia kontutan hartzen duzue?

Bai berdina gertatzen da diruarekin. Egun batean azpituna erabiltzen dut eta hurrengoan merkeak diren txerri muturrekin prestatzen dut errezeta goxoa... Azkenean jendearen lekuan jaritzen saiatzen naiz beti.

Zuretzat festetarako menu hobereana zein da?

Marmitakoa da niretzat hobereana. Jendea gomendatuko nioke lehenago eginda utz daitekeen zerbait prestatzea eta noski egiten dakien zerbait, ez liatu! Entsalada on batekin ere ondo gelditzen zara lagunene arteko afarietan. Gauza da denbora asko sukaldean ez egitea eta festaz gozatzeko aukera izatea!

Edateko zer gomendatuko zenuke?

Lapikoan egindako etxeko gin tonic edo kubatak oso

Nire errezetekin dieta egitea posible da. Jendearen esku dago kantitateak neurtu eta dieta orekatu bat mantentzea

gomendagarriak dira. Lapikoan edariak bota, ondoren izotza kantitate handian, ondo nahastu eta prest! hobereana da. Txakoli sangria ere oso gustagarria da udaran batez ere. Dena den, herriko festetan edateko ia dena da onargarria.

"Guarrindongada" atal arrakastatsuen da?

Bai badirudi asko gustatzen zaiola jendea. Duela urte asko nire blogean "caca rica est" atal bat jarri nuen martxan eta jendeak asko bidaltzen zizkidan. Hoberenak gordetzen joan nintzen eta telebistarako proiektua prestatzen hasi ginean, hauentzat tarte bat egotea merezi zuela erabaki genuen.

Orain jendeak kaletik ikusten nauenean, bere "guarrindongada" esaten hasten zait... kurioa da baina nirekin hitz egiten hasteko aitzaki bezala jende askok erabiltzen du eta izena eman baino lehen askok dagoeneko euren guarrindongada esan didate!

Baina zer dira "Guarrindongada" hauek?

"Guarrindongada" benetan disfrutatzen diren perbertsio gastronomikoak dira. Jendea gehien gustatzen zaiona ez

da jatetxe batean ondo jatea, benetan disfrutatzen den momentua parrandatik bueltan etxeko sukaldean erdi ezkutuan jateko prestatzen den "plater" berezi eta personalizatu hori da.

Lasarte-Orian lagun asko al dituzu?

Bai, noski, esan bezala urte asko dira hemen lanean. Patxi Larrañagarekin adibidez oso harakin ona da eta berarekin konfiantza asko daukat, saiorako gauza asko lortzen dizkit. Adurizekoekin ere lan asko egiten dugu...

Apaolaza anaiei baratzeetik barazki asko ekartzen ditugu ere eta Manuel Iradiren frutak oso goxoak dira.

San Pedro jaietan egon al zara?

Bai noski, nik Lasarte-Orian bizitza erdia eman dut. Oso gaztetan etorri nintzen Martinen sukaldaria lanera eta lanekoekin baita lagunekin ere parrandak bota izan ditut festetan. Neska lagunak ere izan ditut nik Lasarte-Orian!

Orain jendeak kaletik ezagutu zaitu...

Bai telebistak hori dauka gehiago ezagutzen naute. Ni rollo ona transmititzen saia-

tzen naiz eta hori da jendearengandik jasotzen dudana. Ez dut pentsatu nahi ere egin telebistan astakeriak esaten agertzen diren horiek kaletik zer jasoko duten... nirekin denak oso jatorrak dira eta ezagunago izatea ez zait bereziki axola.

Idatzi ere egiten duzue...

Bai egia esan horretarako tartea ere atera behar izaten dut. Zorionez nire lana jana eta edanarekin lotuta dago eta telebistarako iristen zaizkigun produktuei buruz idazten dut askotan. Esan nahi dut nire artikuluak idazteko ez dudala askotan gaiak bilatzen ibili behar.

Askotan gertatzen zaitz oporretara joaten naizenean ere lan egiten behar izatea. Agian upategi bat bisitatzea gonbidatu naute ardo bat dastatu eta honi buruz idazteko eta opor horien barruan nolabait sartzen dut bisita, lanaren beste alde bat da. Hala ere aitortu behar dut asko gustatzen zaidala nire lana eta horrelakoak ere gustura egiten ditudala.

Dagoeneko saioa bukatu al duzue?

Bai bukatu dugu momentuz. Uda bitartean gure ordutegian saio zaharrak jarriko dituzte iaz egiten bezala eta iraileko edo urriaren berriekin hasiko gara. Denboraldi berriko berrikuntza bat edo beste aurreikusten dugu baina ikusleek oporretatik bueltan ikusiko dute. Ez dut ezer aurreratuko!



lasarte iberikoak
OLEOTEKA





SAN PEDROTAN IREKIKO DUGU!

Oso ondo pasa!

Geltoki 4 behea
Lasarte-Oria
Tel.: 943 249743



ELECTRICIDAD ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

www.electricidadarregui.com

Oso ondo pasa herriko jaietan!

Orain sukaldeko tresneria salgai!



Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521





Bila bazabiltza, hementxe duzu


*Erabateko gutizia aurkituko duzue
gure produktuetan!*



gure BETIKO kafea



Oso ondo pasa herriko jaietan !



**GURE
KALITATEA
DASTATU**

Pablo Mutiozabal 3 • Tel.: 943 364121 • 20160 LASARTE-ORIA



debelaiz *Nere tailerra*
talleres

kalitatea, prezioa eta zerbitzu guztiak

AUTOENTZAKO ZERBITZU INTEGRALA *Oso ondo pasa!*

Oria etorbidea 4, 3. lokala • Lasarte-Oria
Tel.: 943 366671 • www.debelaiz.com




ARTIZAR
TABERNA

BOKATAK
RAZIOAK
PINTXOAK
....

Festetan asko disfrutatu!

Nagusia 12 atzekaldea • Lasarte-Oria
Tel.: 608 422247

Askok disfrutatu festetan!



XINBOA
TABERNA

Razioak
Pintxoak
...

Etorni dastatzera!



Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 370885

HARATEGIA • URDATEGIA

ARALAR

ONDO iBiLi
KERRIKO JAiETAN!

Aralar plaza 1
LASARTE-ORIA
Tel.: 943 365591



ISU *Jai alaiak opa dizkizuegu!*

- POLIURETANOAK
- PVC
- ALUMINIOA
- ZUBI TERMIKOAREN HAUSDURA
- ATE-LEIHOAK
- PERTSIANAK
- TOLDOAK
- DEKORAZIOA



Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 366495 • Faxa: 943 365222

INFORMATIKA
MARTINEZ MULTIMEDIA

Ondo igaro jaietan!

Ezagutu itzazu gure eskaintzak, beste inora jo aurretik!

Uzturre plaza 2, behea • Tel./Faxa: 943 360591
LASARTE-ORIA

Herriko jai zoriontsuak opa dizkizuegu!



aterpea
lasarte/oria

MAIDER *Ondo igaro San Pedro jaiak!*

Taberna - Jatetxea

- Asteburuko menu bereziak
- Eguneko menuak
- Gaueko menuak
- Kartako zerbitzua
- Pintxoak
- Bokatak
- Razioak
- Plater konbinatuak



Hipodromo etorbidea 7 • Tel.: 943 362700 • LASARTE-ORIA

SALAZAR PROFESIONAL
ILEA-APAINTEZKO ETA EDERGINTZAKO PRODUKTUAK

Kalitate onenaz zainduko zaitugu

San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Geltoki Kalea 15
Tel.: 943 360211
www.salazarpro.net



ANTONIO URRUZOLA

ZURGINTZA eta EBANISTERIA

ARozTEGIA

San Pedro jai onak pasa!

Asteasuain polig., 3. pabilioa
20170 • USURBIL (Gipuzkoa)
Tel./Faxa: 943 376415
Mobila 687 845597

Etortzeko erakusketa ikustera!

San Pedro Jaien esperoan...

Herriko festak hasi aurretik herrian hainbat ekintza egin ziren, motorrak berotzeko



Erketz EDT-k ikasturte amaierako emanaldi ederra eskaini zuen larunbatean Okendon.

Mahai joko eta mugimendu jolasak egin dituzte Biyak-Bateko lagunek.



Astearteko uretako festan 80 bat haur bildu ziren igerilekuan.

XVI. Mosso Oroimenezkoa El Punto de Encuentrok irabazi zuen, finalean ISU Leihok 7-2 garaitu ostean.

GOXOKIS GOXUA

Eskerrik asko gugan jarritako konfidantzagatik

Ondo pasa herriko festetan !



Geltoki Kalea 9 behea • Tel.: 637 462666

Oso ondo pasa San Pedroan !



Mahala
MAHALA BASERRRIA • LEABURU • GIPUZKOA • T. 943 670 724 • WWW.MAHALANATURALA.COM

ZUMABURU
LIBURUDENDA

Ondo pasa festetan!



Nagusia Kalea 46 behea • 20160 Lasarte Oria • Tel.: 943 371386



Ikasturte amaierako ikuskizun gisa, kiroldegian, Emakumeen Zentro Zibikoak batuka, aerobic-a eta sabel-dantza egin zituzten eta Biyak-Bat elkarteko jubilatuek berriz, gimnasia eta aerobic-a.



Txepetxa eta Alboka Txiki abesbatzek euren ahots zerutiarrak erakutsi zituzten.

Alboka abesbatzak Brijidatarren komentuan kontzertu ederra eskaini zuen, zortzi obra abestuz.



Ikasturte amaierako Udai-Musika eskolako kontzertuak ere izan ziren.

EPAko ikasle ohiez osatutako Lan eta Lan antzerki taldeak "Melocotón en Almibar" antzezlan eskaini zuen.



ALBA

ARROPA DENDA

Askok disfrutatu
San Pedro jaietan!





KOOKAI
NIN
NAFNAF
YERSE

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450

Zorion agurrak



Ekain

Zorionak maittia zure 2. urtebetetzean. Txokolatzeko 2 muxu erraldoi familiarren partetik



Mikel

Zorionak osaba. Ono pasa Ane eta Jon-en partetik.



Olatz

Zorionak zure bostgarren urtebetetzean famili guztiaren partetik. Muxu pila bat.



Markel

Zorionak zure laugarren urtebetetzean. Muxu asko zure familiarren partetik. Muua!



Urko

Zorionak bonbon!!! Muxu handi bat zure familiarren partetik.



Alvaro

Zorionak zure laugarren urtebetetzean! Mila muxu guraso, aitona-amona eta osaba-izeben partetik.



June

Bi txokolatzeko muxu gure printsesari gurasoen partetik.



Nahikari

Sorgina pirulina, mila muxu zure bigarren urtebetetzean. Aitaxo, amatxo eta familia osoaren partetik.

Herritarren txokoa

Kiroldegiko ordutegia jaietan

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakin arazten du, San Pedro jaiak direla eta ekainaren 29 eta 30ean kiroldegia itxia egongo dela.

Ekainaren 28an, berriz, goizez egongo da irekia, 7:00etatik 13:00etara.

Kirol gunea itxia egongo da San Pedro jaietan.

Udako ordutegia kiroldegian

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakin arazten du, uztailaren 1etik aurrera udako ordutegia izango dela indarrean.

Kiroldegia astelehenetik ostiralera 7:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 22:00etara egongo da irekia, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta igandetan itxita egongo da.

Kirol Gunea, berriz, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 21:00etara irekiko dituzte, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta igandetan itxita egongo da.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, betaurreko graduatuak eta eguzkitako betaurrekoak.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Txupinak zuzenean eta San Pedro Jaietako informazioa txintxarri.info-n

Jarraritu San Pedro jaiak txintxarri.info orrialdean sortu dugun atal berezian:

- Txupinak streaming bidez
- Argazkiak
- Bideoak
- Jaietako berriak



TXINTXARRIren hurrengo zenbakirako bidali zuen argazkiak

Herriko jaiak direla eta, uztailaren 3ko TXINTXARRI zenbaki berezia izango da eta San Pedro jaietako argazkiekin osatuko dugu.

Jaietan atera dituzuen argazkiak TXINTXARRI-n argitaratzea nahi baduzue bidali txintxarri@txintxarri.info helbidera astelehen goizez.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

AUTOESKOLA IZARRA AUTOESCUELA
www.autoescuelaizarra.com

AZTERKETA TESTA
Euskeraz/Gastelaniaz
Oso ondo pasa San Pedroan!

MATRIKULA 10%

Bideo argigarriak eta intentsibo testak On-line

Etxean edo Autoeskolan PRESTATU ZAITEZI!

Geltoki Kalea, 11 - behea (Lasarte) Tel.: 943377005

EPPEL

Oso ondo igaro San Pedro jaietan!

TXERRI-BELARRI GUTIZIAZKOAK ETA OLAGARROA

AUKERA IZUGARRIA

- pintxoetan
- razioetan
- ogitartekoetan
- plater konbinatuetan

Goikale 1 • Tel.: 943 362701 • LASARTE-ORIA

FISIOTERAPIA ZENTROA Ibaiondo

Fisioterapia Errehabilitazioa Masajeak Osteopatia

oso ondo pasa herriko jaietan!

Ola Kalea, 12 - behea. ezk - LASARTE-ORIA
Tel / Faxes: 943 370 306 - fisioibaiondo@gmail.com

Altuna DEKORAZIOA

Erakusketa Kale Nagusia 4 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362157
Faxes: 943 366157

Valentine MARKA HORIEN BANATZAILA OFIZIALA

Oso ondo pasa festetan!

Biltegia Errekalde pol. 33 • DONOSTIA (Lehenko Bianchi)
Tel.: 943 364403

NEUS ile-apaindegia

Ondo igaro herriko jaietan!

Pablo Mutiozabal 9-1.C.Tel.: 943 361691 LASARTE-ORIA

JOSE AIZPURUA UNANUE S.L. eraikuntzak



San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuegu!



- Igeltseritza orokorrean
- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak

Nagusia 14 behea atzekoaldea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373879 • Mobila: 620 800186


URTEURRENA
1935-2010



ILLARRETA
ITURGINTZA

info@illarreta.com

Asko disfrutatu
San Pedro jaietan!




TAILERRA ETA BULEGOA:
Ugaldea polig. 8 • Tel.: 943 361752
USURBIL

ERAKUSKETA ETA DENDA
Geltoki kalea 21 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 363147



- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emalea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen kordinazioa
- Arreta pertsonalizatua



IZARRA BITXITEGIA

www.izarrabitxitegia.com

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945



IPARJOY® A.L.E.

